

Bergarako astekaria

Berrigara



Herriko zinegileak euskaraz sortzen

Zinea euskaraz

Nissan **Almera**
Gidatu eta gozatu

5 urteko garantia osoa.

Blanco Amillaga 22. Tf. eta faxa, 76 17 35



Esaiozu.



♥ Tissot erlojuak.
Irudi erlojutegia. Ibargarai 2.



♥ Larrosa... gorriak.
Lislore loradenda. Barrenkalea 28.



♥ Jim-en boxer eta kamiseta konjuntua.
Mujika jantzidenda. San Martin plaza.



♥ Carolina Herreraren 212 kode berria.
Amaia perfumeria. Barrenkalea 25.



♥ Diamante bat betiko da.
Etxeberria erlojutegia. Bidekurutzeta 16.



♥ Gregorio y Oliveros gerrikoak.
Garnish poltsak. San Pedro 12.



♥ René Barten-en emakumeendako lenteria.
Nerea lenteria. Simon Arrieta plaza.



♥ Vogart betaurrekoak.
Manso optika. Irizar 2.



♥ Cacharel-en emakumeendako lenteria
Igarza mertzeria. Irala 5.

San Valentín egunean.



Beste insumisiño batzuk

Juan Martin Elexpuru / Idazlea

Insumisuei esker igual gure semiak edo loibak eztabe derrigorrian soldau joan biharrik izango. Txapela kentzekua da eruan daben eta daroien burrukia. Zigorrak, kartzelia, etorkizuna arriskuan... eta hala eta be eutsi, temoso-temoso. Eta esan leike sokatira hori ixa irabazitta dagola.

Puxka bat pentsatzen jarritta, esan leike beste hainbat esparrutan be saiatu leikela modu berdintsuan, eta konsegidu leizkela gauzak. Gure hizkuntzaren defentsan, esate baterako. Peridikuetatik badakigu abogau euskaldunak zenbat demanda darabilen aspaldixan epaiketak euskeraz egin ahal izateko. Onian ezin danian txarrian, aurrera-pauso haundixak dihardue emoten. Jente horren gaurko lanari esker, bihar normala izango euskeraz deklarau eta epaitu ahal izatia.

Kotxian aseguruua, pisuaren kontratua, kredituak... makina bat papel firmatu behar izaten dogu gure bizimoduuan. Erderaz ixa beti. Insumiso izate-

ko aukeraik etxaku falta.. "Ez, ez noia hau firmatzera, eroatera edo saltzera, agirixak euskeraz ez daren bittartian". Eskubide osua daukagu exijitzeko. Aurrezki Kutxak, Notarixak, Aseguru Etxiak eta holakuak, gehixenak ez tie euskalzaletasunagatik mobiduko. Baina bezeruak galtzeko arriskua ikusten badabe, amigo... Espabilauko die bai.

Kataluñan oso serixo dabitiz etiketa-je kontuan. Hemendik aurrera produktua katalanez etiketauko die, dekretoz. Hemen, Euskal Herrixan, oinddio

"Egixa da zelabaitt bizi eta hil bihar dala. Baina behin bakarrik bizi garenez, ba ezta gaizki etortzen noizian behin gauzak zela eta zergatik egiten dittugun pentsatzen jartzia"

ezta planteau be egin. Baina konsumitzailliak batzen baga eta euskeraz etiketau bareko jeneruei boikota egin... gosiak geratzeko arriskua daukagu. Baiña zerbait egin biharra dago. Eusker Elkartiak, EHE, etab. horretara jarriko balira...

Badie beste insumisiño klase batzuk ixa aittatzera be atrebitzen enaizenak, "Bajatok karroza hau bere sanokerixekin" esango dau eta baten batek. Bat da zaratia. Tabernetako zaratai insumisiñua. Eta futbola eta futbolari, bihotzeko aldizkariei eta telebistako "Que me dices" guztiei, multinazionalak muturretatik sartzen doskuen musika-taldiei, gehixegi jan, eran eta erretziai, eta... Illariak jarraitu leike eztaikit noraino, bakoitzan manixen agindura.

Egixa da zelabaitt bizi eta hil bihar dala. Baina behin bakarrik bizi garenez, ba nik uste dot ezta gaizki etortzen noizian behin gauzak zela eta zergatik egiten dittugun pentsatzen jartzia. B

■ barruan



Eulalia Tartas

Chernobil Lagunak elkartekoa

"Chernobilgo umeak etxean hartzea oso onuragarria da eurentzako batez ere"

8. orrialdean.



Asier Altuna "Kixi"

Zinegilea

"Argi geneukan 'Txotx' euskaraz errodatu behar genuela, erdaraz indarra galduko luke guztiz"

19. orrialdean.



Luis Agirre

Agirre jantxidendakoa

"Orain 50 urte, lehen eskaera Musika Bandarentzako trajeak egitea izan zen"

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1723. Otsailaren 6an San Martinen heriotzaren mendeurrenarako antolatu ziren jai handien barruan, zezen zuzkoa atera zuten lehen aldiz Bergaran plaza. Donostian bizi ziren bergarrek ospakizunetarako gertatutako sorpresa izan zen.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1592. Katalina Erauso jaio zen Donostian otsailaren 4an.

1615. Ordizia eta Beasain banatu egin ziren.

1913. Euzkadi egunkaria sortu zen Bilbon, otsailaren 1ean.

MUNDUAN GERTATUA

1964. Otsailaren 2an, Ranger VI estatubatuarrek jaurtitako sonda iletergira heldu zen.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 30
11-17-18-27-42-48 (osag.34/er.9)

Astelehena 2
9-14-21-23-26-42 (osag.17/er.0)

Martitzena 3
2-9-35-37-45-48 (osag.36/er.4)

Eguaztena 4
5-10-19-21-27-29 (osag.30/er.4)

PRIMITIVA

Eguena 29
3-7-15-26-37-44 (osag.13/er.9)

Zapatua 31
1-9-18-26-27-37 (osag.48/er.0)

Domeka 1 Gordo
5-13-17-21-33-47 (osag.18/er.0)

ONCE


Eguakitza 30 (K. seriea: 149) 17.850
Astelehena 2 59.014
Martitzena 3 27.022
Eguaztena 4 47.247

BESTE BATZUK

Bedelkarreko harakinak: 9.014
AEK, soldata baten zozketa:
17.850
Mikel Vicenteren alde:
21.588 / 1.437 / 16.190





Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Zapatuan, hodeiak eta urdineak tartekatuko dira zerruan, goiz partean batez ere, egunak aurrera egin ahala hodeiak nagusituko baitira. Domekan, urdineak nagusituko dira. Tenperaturak gorra; haizeak hegotik joko du.

Ilargiaren aldiak

-  Ilbete: Otsailak 11
-  Ilbehera: Otsailak 19
-  Ilberri: Otsailak 26
-  Ilgora: Martxoak 5

Eguzkia

Domekan



Sortu: 07:17



Gorde: 17:41

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 29	15	8	-
Eguakitza 30	13	5	-
Zapatua 31	15	3	-
Domeka 1	15	0	0,2
Astelehena 2	12	3	13,1
Martitzena 3	10	6	1,9
Eguaztena 4	10	8	2,6

farmaziak

Eguakitza 6 GUALLAR.
San Antonio 5, Bergara. Tf. 76 11 05.

Zapatua 7 ESTELLA.
Matxiategi 5, Bergara. Tf. 76 19 63.

Domeka 8 ESTELLA.
Matxiategi 5, Bergara. Tf. 76 19 63.

Astelehena 9 MOZOS.
San Pedro 4, Bergara. Tf. 76 12 15.

Martitzena 10 CAMACHO.
Oxirondo 4, Bergara. Tf. 76 11 74.

Eguaztena 11 PUY.
Barrenkalea 25, Bergara. Tf. 78 16 87.

Eguena 12 GUALLAR.
San Antonio 5, Bergara. Tf. 76 11 05.

ogia

Domeka 8: Ogizun.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Aoko zulora begira egon

Norbaiti, disimulorik gabe, aurpegira begira egon.



- Mutikuak, aldeizue emendik, neri aoko zulora begira egoteke!

JOSU OKINA

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

SOS deiak	008
DYA	78 71 57
Gurutze Gorria	76 55 76
Larrialdiak	76 12 94
Anbulantzia	55 49 62
Udaltzaingoa	77 91 06
Ertzaintza	76 53 40
Suhiltzaileak	78 28 00
Osasun Etxea	76 24 40
Arrasateko ospitela	79 53 00
Asepeyo	76 16 43
Pakea	76 13 49
Alcer	76 12 62
Angiozarko medikua	78 90 27
Antzuolako medikua	76 62 23
HIES Ekimena	79 26 99
Odol emaleak	76 16 24

Garraioak

Euskotren	45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	76 19 50
RENFE	28 35 99

Udala

Udaletxea	77 91 00
Euskara Zerbitzua	77 91 66
Igerilekuak	76 20 51
Kirol Zerbitzua	77 91 67
Kultur Etxea	77 91 58
Liburutegia	77 91 62
Mizpirualde Egoitza	76 13 68

Prentsa berriemaleak

Berrigara	76 03 97
Egin	76 45 52
El Correo	76 10 90
El Diario Vasco	76 81 57

Bestelakoak

Bedelkar	76 04 68
Epaitegia	76 14 92
Erregistroa	76 13 15
Jardun	76 36 61
Jubilatuen Etxea	76 21 40
Mendi Nekazaritza	76 25 47
Musika Eskola	76 57 80
Notaritza	76 10 73
Postetxea	76 26 85
Xipizaro ludoteka	76 23 76

jaiotakoak

BERGARA

Markel Garmendia Molina
Urtarrilak 24

Ibon Etxabarri Goiti

Urtarrilak 29

ANTZUOLA

Xabier Iparragirre Jauregi

Urtarrilak 25

Helene Bastarrika Lizarralde

Urtarrilak 30

hildakoak

BERGARA

Inocencia Ugarteburu Aranburu

Urtarrilak 28, 92 urte

M. Adoracion Gallastegi Alberdi

Urtarrilak 31, 77 urte

Pablo Aranzabal Oianguren

Otsailak 1, 55 urte

Ignacia Luarizaristi Mujika

Otsailak 1, 87 urte

Maria Palacios Castillejo

Otsailak 2, 88 urte

Isidora Azkarateaskasua Larrañaga

Otsailak 3, 84 urte

zorion agurrak



Lierni Narbaiza
zoriondu nahi dugu bere lagunok, atzetuta ibili arren, urtarrilaren 21ean 39 urte bete zituen eta.




Josefina Guerra
Martitzenean, otsailak 3, izan zen bere urtebetetze eguna. Zorionak etxekoan partetik!



Leire Zabaleta
Urtarrilaren 30ean 10 urte bete zituen. Zorionak etxeko den-denon partetik Leire!



Maite Zabaleta
Otsailaren 7an 13 urte beteko ditu. Zorionak etxeko den-denon partetik Maite!



Txentxo Zengotitabengoa
39 urte bete zituen hilaren 2an. Zorionak koinatuen eta loiben partetik!



Olatz Urrutia Arruti
Martitzenean 4 urte beteko ditu. Zorionak Xabier eta Paulen partetik!

eskelak

Julita Unamuno Arbulu

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 8an, goizeko 10:30, Angiozarko Mikel Goiangeruaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko familiakoan partez.

Rosario Luarizaristi Mujika

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 8an, goizeko 11:30, Santa Marinar.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko Floren Murgiondo alargunaren eta sendi osoaren partez.

Ignacia Luarizaristi Mujika

Bergaran zendu zen 1998ko otsailaren 2an.



Familiaren partez mila esker azken agurra ematera etorri zineten denoi.

Bere umore onak eta izaerak jarrai dezalagure artean.



Ainhoa Iglesias
Bihar, hilak 7, 15 urte beteko ditu. Zorionak Gorkaren partetik!



Igor Granados Retes
Otsailaren 11n 19 urte egingo ditu. Zorionak gurasoen partetik!



Amaia Oregi
30 urte bete zituen eguaztenean. Zorionak amama, zure biloba, Maite eta Zubiren partez!



Iñaki Zangitu
Martitzenean 33 urte bete zituen. Zorionak koadrilakoan partetik!

PESA autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 17:00, 18:00, 20:30. **Zapatuak:** 07:35, 08:35, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. **Domeka eta jaiegunak:** 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 16:40, 17:15, 18:00, 20:40. **Zapatuak:** 08:30, 18:00, 20:40. **Domeka eta jaiegunak:** 10:00, 18:00.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). **Zapatuak:** 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). **Domeka eta jaiegunak:** 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino).

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15, 21:45. **Zapatuak:** 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 20:30, 21:15, 21:45. **Domeka eta jaiegunak:** 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15, 21:45.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. **Zapatuak:** 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. **Domeka eta jai egunak:** 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. **Zapatuak:** 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05. **Domeka eta jaiegunak:** 08:35, 09:50, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. **Zapatuak:** 20:45. **Domeka eta jaiegunak:** ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. **Zapatu, domeka eta jai egunak:** ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. **Zapatuak:** 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. **Domeka eta jaiegunak:** 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. **Zapatuak:** 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 15:00, 14:45, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. **Domeka eta jaiegunak:** 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 20:45, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. **Zapatuak:** 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. **Domeka eta jaiegunak:** 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunetan: 09:00, 18:00. **Zapatuak:** 09:00, 18:00. **Domeka eta jaiegunak:** 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. **Zapatuak:** 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. **Domeka eta jaiegunak:** 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30. **Zapatuak:** 07:00, 16:30. **Domeka eta jaiegunak:** 08:30, 16:30.

Bergara-Bilbo. Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. **Zapatuak:** 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. **Domeka eta jaiegunak:** 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 17:00, 20:00. **Zapatuak:** 08:00, 17:00, 20:00. **Domeka eta jaiegunak:** 09:00, 17:00, 21:00.

MUSIKA

► **Enrique Bunbury** domekan, 22:00etan, Jam aretoan. Aurrez, sarrerak 1.800 pezetan salgai.

ERAKUSKETAK

► **Martxe Aranaren** oleo eta guache erakusketa Nahikarin.

► **Gure Ametsa elkartearen 25. urteurrena** ospatzeko ekitaldien barruan, San Antonioko auzoari buruzko margo erakusketa elkartearen bertan zabalik, egunero 19:00etatik aurrera.

► **Eguzki bidezko asmakariak** erakusketa Kultur Etxean, otsailaren 9tik 15era.

IKASTAROAK

► Arrasateko Gazte Zerbitzuak **dantza karibe-
arrei buruzko ikastaroa** (otsailaren 23tik) antolatuta du. Argibideak 77 00 65 telefonoan.

► **Hezkide Eskolak** "Familia barruan ekintza hezitzailearen oinarriko heziketa" (martxoaren 6tik apirilaren 2ra bitartean) eta "Euskararen sustapena" (otsailaren 27 eta 28an eta martxoaren 6 eta 7an) izenburuko ikastaroak

SAN BLAS JAIK

Harrijasotzaileak

San Blas auzoan

Noiz: domekan, 13:00etan.

Iñaki eta Iñaxio Perurena aita-emeek harrijasotze saioa eskainiko dute domeka eguerdian San Blasen. Iñakik dagoeneko 42 urte ditu eta ez da lehen beste aritzen harria jasotzen. Hala ere, bere semearengan erreleboa aurkitu du; etxean maisu haundia izanik, Iñaxiok (14 urte) harriarekiko afizio handia erakutsi du. Domekan, 80 kg.ko harrizko bolarekin dozena erdi altxaldi egiten saiatuko da eta, ondoren, 125 kg.ko harria hiru aldiz jasotzeko ahalegina egingo du. Aitak, bestalde, oraindik ere sasoiaren dagoela erakutsiko du San Blasen. Iñaki Perurena 250 kg. (hiru altxaldi), 200 kg. (esku bakar batekin) eta 125 kg. (lepoan buelta) altxatuko ditu.

Perurenatarren saioaren ondoren, harrijasotzaile gazteen I. San Blas saria jokatuko da. Bi minututan 45 kg.ko harri

bolarekin altxaldi gehien lortzen dituen izango da irabazlea. Izen-ematea domekan bertan egin beharko da San Blasen eta antolatzaileek parte hartzeko dei egiten dute.

Bestalde, programaren barruan, gaur 20:30etan auzo afaria eta jarraian Gezalaga anai-arrebek alaitutako erromeria izango dira San Blasen; bihar, 16:00etan mus txapelketa (izen-ematea orduerdi lehenago) jokatuko da. Azkenik, domekan, 12:30etan, txaflero jaurtiketa eta meza nagusia; ondoren, salda banaketa, Aranzadi Ikastola-Moises Aspiazu dantzataldearen saioa eta 13:30etan haurrentzako jolas eta kukañak. Goizean zehar Gezalaga trikitaliak arituko dira. B



Iñaki Perurena bere semearekin lehiatuko da domekan Murinondon.

antolatu ditu Donostian. Izen-ematea otsailaren 13a baino lehen. Argibideak 31 14 74 telefonoan.

► **Tai Chi, Chi Kung, yoga eta meditazioari** buruzko ikastaroa Zestoako

Sastarrain baserrian, martxoaren 6tik 8ra bitartean. 12.500 pezeta, klaseak, alojamendua eta janaria (janari begetarianoa) barne. Izen-ematea otsailaren 27a baino lehen. Argibideak 71 41 91 telefonoan.

► **AEK Akulu** euskaltegian B urratserako talde bat osatu nahi da, otsailetik ekainera bitartean. Klaseak asteleheneetik ostegunera, 19:00etatik 21:00etara. Argibideak 76 05 18 telefonoan.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, unxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 76 15 09



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA Tf. 76 23 94 - 76 12 65

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

LEHIAKETAK

▶ Udal Kirol Zerbitzuak **bikotekako frontenis txapelketa** antolatu du otsailaren 19tik aurrera. Izen-ematea otsailaren 12a baino lehen. 77 91 67.

▶ Arrasateko Udalak martxoaren 8an ospatuko den **Emakumearen eguneko kartel lehiaketa** antolatu du. Kartelen neurriak, gehienez, 50x75 zm.koak izango dira eta teknika librekoa izango da. Kartelak testu hau eraman beharko dute: "Martxoak 8: denok batera". Irabazleak 50.000 pezeta jasoko ditu. Kartelak otsailaren 18a baino lehen jasoko dira Arrasateko Udaleko Emakume Sailean. Argibideak 79 41 39 telefonoan.

DEIAK

▶ **Hitzaldia.** Jose Manuel Jimenez-ek "Tecnologia solar para todos" izenburuko hitzaldia emango du astelehenean 19:00etan Kultur Etxean.

▶ **Formigalera eski irteerak** otsailaren 28an eta martxoaren 1ean; martxoaren 7 eta 8an eta, azkenik, martxoaren 19tik 22ra. Alpeetara irteera apirilaren 10etik 17ra. Argibideak eta izen-ematea Pol-Poleko bulegoan (76 48 51), astelehentik ostegunera,

19:00etatik 20:30etara.

▶ Diputazioak 65 urteko gorakoei zuzendutako **termalismo programa** jarri du martxan. Txanda bakoitza 11 egunekoa da. Argibideak 900 43 43 43 telefonoan.

▶ Jubilatuei zuzendutako **"Tarteko" programaren** barruan, martxoaren 9tik apirilaren 7ra bitartean Alcoceberren (Castellon), egonaldia antolatu da. Izen-ematea otsailaren 17a baino lehen, 76 21 40 telefonoan.

▶ **AEKren eskutik** artisau erakusketa, trikitixa, Ange Duhalderen emanaldia, Etxakit eta Akelarre taldeak eta beste hainbat ekitaldi izango dira otsailaren 14an Astigarragan. Bazkari herrikoia egingo da sagardotegian. Prezioa, 3.500 pezeta, bazkaria eta autobusa barne. Izen-ematea, 76 05 18.

▶ **1958tik 62ra bitartean Angiozarren jaiotakoan afarria** martxoaren 28an. Izen-ematea 78 22 80 eta 76 54 81 telefonoan.

▶ **Presoak Euskal Herrira** ekimenak deituta, firma bilketa domekan Osintxun.

▶ **Xipizaroren** eskutik, otsailaren 21ean, arratsaldean, play-back saioa Plazan 3-16 urte bitartekoentzat. Izen-ematea hilaren 14a baino lehen. 76 23 76.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

L.A. Confidential

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Batman & Robin

Domeka: 11:30.

Dos chicas de hoy

Eguena, zine kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Titanic

Eguakitza: 18:30, 22:00.

Zapatua: 18:30, 22:00.

Domeka: 18:30, 22:00.

Astelehena: 18:30, 22:00.

Martitzena: 18:30, 22:00.

ARRASATE. Amaia

Celuloide

Eguena, zine-kluba: 21:30.

EIBAR. Unzaga

Atrapada entre dos hombres

Eguakitza: 19:30, 22:15.

Zapatua: 19:30, 22:15.

Domeka: 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna:

19:30, 22:15.

George de la jungla

Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR. Rialto

Tormenta de hielo

Eguakitza: 19:30, 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, ikuslearen eguna:

19:30, 22:15.

OÑATI. Santana

The Game

Eguakitza: 22:30.

Domeka: 22:30.

Astelehena: 19:30.

The box of moonlight

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ANTZUOLA. Gazinema

Broken Arrow

Eguakitza: 22:00.

Napoleon (El perrito valiente)

Domeka: 16:30.

L.A. CONFIDENTIAL

Zuzendaria: Curtis Hanson.

Aktoreak: Kevin Spacey, Kim

Bassinger eta Russell Crowe.

1950ko hamarkadako Hollywooden girotutako filmea. Drogei aurkako borrokan, *Vinceness* polizia zineko izarren kontra arituko da aldizkari sentsasionalista bateko kazetari baten laguntzaz. Hilketak bat ikertzean, korrupzio sare batean murgilduko da...

BATMAN & ROBIN

Zuzendaria: Joel Schumacher.

Aktoreak: George Clooney,

Arnold Schwarzenegger, Chris

O'Donnell eta Uma Thurman.

Gotham City hirira *Freeze* izeneko gaizkilea heldu da; bertako biztanleak babesteko *Batman* beharrezkoa da. Oraingo honetan, *Robinen* laguntza ere izango du. *Poison Ivy* emakume maltzurak eta *Freezek* indarrak batuko dituzte baina espero ez zuten *Batgirlari* ere aurre egin beharko diote.

DOS CHICAS DE HOY

Zuzendaria: Mike Leigh.

Aktoreak: Mark Benton, Lynda

Steadman eta Katrin Cartlidge.

Sei urtez bananduta egon ondoren, 30 urteko bi emakume berriz elkartuko dira, gaztetako momentuak oroitzen hasiz. Kointzidentzia batzurenatik ikasle garaian ezagututako lagunak, orduko *ligeak* eta beste hainbat ezagunekin topo egingo dute, momentu alaiak eta tristeak gogoratuz.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.


ZUBIETA

elektragarritza

MOTORREN BOBINAKETA,
ERA GUZTIETAKO
INSTALAKUNTZAK.

Kruz Gallastegi 2 behea
☎ 76 23 48

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 76 41 50 BERGARA

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra,
poliuretanoa... Leihoak,
ateak, manparak...



**Eska ezazu
aurrekontua konpromezu barik**

Erakusketa: Masterreka 14 behea
BERGARA
Tf.: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Chernobilgo hondamendia (1986an ihes erradioaktiboa izan zen bertako zentral nuklearrean) jasan zuten haurrak uda partean etxean jasotzeko hainbat ekimen bul-tzatzen ari dira Deba Garaian. Dagoeneko Chernobil Lagunak elkarteak sortu dute Arrasaten hainbat herritarrek. Euren harremanetan da Eulalia Tartas, iaz Chernobilgo bi mutiko etxean jaso zituen 62 urteko bergararra.

G. Nola bururatu zitzazun iaz Chernobilgo bi mutiko etxean hartzea?

E. Etxean askotan komentatu izan dut haurren bat adoptatzea gustatuko litzaidakeela; semeak, berriz, betirako ez ekartzeko esaten zidan eta egun batean egunkarian irakurri zuen Chernobilgo hondamendia jasan zuten neska-mutikoak udan etxean hartzeko aukerarena. Udalera deitu nuen eta Bilbon dagoen Chernobil elkartekoekin harremanetan jarri ninduten; horrela, bi mutiko, Alexander eta Sviatoslav Batenko, 14 eta 8 urteko anaia ukrainarrak, izan genituen etxean uztaileta abuztuan. Chernobildik 70 bat kilometrora dagoen Kio hirian, gurasorik ez dutenendako etxe batean, bizi dira: aitak burua galduta du Chernobilgo ihes erradioaktiboaren eraginez eta ama alkoholikoa da.

G. Zelako esperientzia izan zen?

E. Guretzat oso esperientzia aberasgarria eta umeentzat oso onuragarria. Pentsatu behar duzu han ez daukatela ia ezer eta denboraldi batez euren herritik kanpo bizitzea oso ona dela eurentzat: arnasa garbia hartu eta kutsatu gabeko janariak jatean euren osasuna

EULALIA TARTAS

Chernobil Lagunak elkartekoa

“Chernobilgo umeak etxean hartzea oso onuragarria da eurentzat batez ere”



Eulalia Tartasek bi anaia ukrainiar izan zituen etxean iazko udan.

na nabarmen egiten du hobera. Uztailean, batez ere, udalekuan eta piszinetan primeran pasatu zuten; abuztuan, hemen egindako lagun asko kanpora joan ziren eta hasieran tris-teago egon ziren, baina tira! Bestalde, batzuetan hizkuntz arazoak izaten genituen, baina modu batera edo irakasle baten lagun-

“Chernobilgo hondamendia jasan zuten umeak udan etxean hartu nahi dituztenek Udaleko Ongizate Zerbitzura jo dezakete”

tzaz konpontzen ginen.

G. Chernobilgo ihes erradioaktiboaren arrastorik bazuten?

E. Txikia egun batzuetan errenka ibiltzen zen, oso erren gainera; beste batzuetan, berriz, ondo ibiltzen zen. Zaharrena ez zegoen oso garatuta 14 urte izateko eta gazteagoa zirudien. Bere gurasoak eta arreba oso altuak baziren ere, berak 11 urteko mutil bat ematen zuen. Horiek guztiak hondamendiaren ondorioak dira.

G. Chernobilgo umeak aurten etxean hartzeko martxan jarri den kanpainari buruz zer esan dezakezu?

E. Iaz berandu samar ibili ziren, baina aurten, Aste Santurako haurrak nork hartu nahi dituen jakin nahi da. Deba Garaia 30 bat neska-mutiko ekarri nahi dira. Familia bakoitzak udan zein hartuko duen jakingo du Aste Santurako. Nire asmoa aurten ere iazkoak jasotzea da, elkar ezagutzen dugu eta noizbehinka gutunak elkar trukutzen ditugu.

G. Eta zer egin behar da Chernobilgo haurrak etxean jasotzeko?

E. Interesa duenak Udaleko Ongizate Zerbitzura jo edo deitu dezala eta eman-goto dizkiote argibideak. Ondoren, Deba Garaian sortu den elkartearekin harremanetan jartzea da onena.

G. Zer kostu dauka haur bat udan hona ekartzeak?

E. Iaz 50.000 pezeta ordaindu genituen haur bakoitzaren bidaia ordaintzeko eta, horrez gain, egonaldien kostua ere familak hartu zuen bere gain. Hala ere, bukaeran, haur bakoitzeko 30.000 pezeta itzuli zizkiguten. Aurten, ordea, hainbat ekitaldi antolatu nahi dira gastuei aurre egiteko; asmoa bidaiarengatik ezer ez ordaintzea da. B

Bergara odol emale gehien dituen Gipuzkoako herrien artean

laz 1.409 odol ateraldi egin ziren gure herrian

Bergarako odol emaleen elkartea hamabostean behin, eguazten arratsaldeetan, antolatzen ditu odol ateraldiak Seminarioko egoitzan. Aurtun, urtarrilean bi ateraldi egin dira eta eguazten honetan beste bat antolatu da. Aurtengo urtarrilean 124 odol ateraldi egin ziren eta eguaztean 62, horietatik bost emale berrienak.


Bergarako Odol Emaleen Elkarteak 1967an sortu zen. Harrezkero etengabe jardun du odol ateraldiak antolatzen. Odola emateko sasoiak daudenez gain, 18 urtetik 65 urtera artekoak, asko dira elkarteko bazkide babesleak direnak eta urtero diru laguntza ematen dutenak.

Irunen atzetik eta Donostia kontutuan hartzeke, Bergara da odol ateraldi gehien egiten dituen Gipuzkoako bigarren herria. Iaz 1.409 odol ateraldi egin ziren eta 118 lagunek eman zuten odola lehen aldiz. Bestalde, 1.000 biztanletik 93 odol emale dago Bergaran. Oso portzentaia altua da bailarako, Gipuzkoako edota estatuko ateraldi mailarekin konparatzen badugu: Deba Garaian, esate baterako, 61 emale dago 1.000 biztanleko; Gipuzkoan, 51; Euskal Autonomi Elkartearen, 43 eta Estatuan, 35.

Estatuan Nafarroako Foru Lurraldeak da indize altue-

ODOL ATERALDIAK 1997

EMALEAK, 1.000 BIZTANLEKO



	ODOL ATERALDIAK		EMALE BERRIAK	
	1996	1997	1996	1997
Bergara	1.294	1.409	73	118
Deba Garaia	5.536	5.836	334	445
Gipuzkoa	29.882	32.159	2.280	2.899

na duen autonomi elkartea (63 emale 1.000 biztanleko); bigarren postuan Kantabria aurkitzen da (44 emale), eta hirugarren, Euskal Autonomi Elkarteak. Munduko Osasun Erakundeak 1.000 biztanleko 50 odol emale izatea gomendatzen du. "Herri txikietan errazagoa da jendea odola ematera animatzea, herritarren artean harreran estuagoak daudelako; bestalde, Gipuzkoan oso lan ona egiten da eta horrek ere zerikusia badauka" esan digu Fernando Idigorasek, Bergarako Odol Emaleen Elkarteko ardura-dunak.

Odola ateratzea ona da

Odola neurrian ateratzea osasunarentzako ona da, gorputza odolberritu egiten delako. Pertsona batek urtean hiru bat bider eman dezake odola eta ateraldi bakoitzean 500 gramo odol ematen du. 18 urtetik 65 urte arteko edozeinek eman dezake odola, beti ere osasun arazorik ez badauka eta gaisotasun jakin batzuk (sifilisa, HIESa, epatitisa...) izan ez baditu. Bergaran 30 eta 45 urte artekoak dira odol emale gehienak. Aipatu beharrik ez dago, bestalde, pertsona batek emanda-

ko odolak edo organoak bi-ziak salbatu ditzakeela.

Odola ateratzera lehen aldiz joan nahi duenak, ateraldiak antolatzen direnean, eguazten arratsaldeetan, Seminaria agertzea besterik ez dauka. Lehenbizi odol analisisa egingo zaio eta emateko moduan badago odola aterako zaio. Ondoren, indarrak hartzeko jateko nahi beste izango du. Fernando Idigorasek Konde, Bolintxo eta Mizpildi okindegiek ematen duten laguntza eskertu nahi izan du eta, bereziki, Mizpildi, elkartea sortu zenetik etengabe ogia eman duelako. B

1.000 biztanleko 93 odol emale daude Bergaran; Estatu Espainolean, oster, 35 odol emale daude 1.000 biztanleko



Uhola errekaeren ubideratze lanak amaitzen dituztenean hasiko dira etxebizitza berriak eraikitzen. ARTXIBOA

Babes ofizialeko etxebizitzak eraikiko dituzte Urteaga kalean

Obrak urte bukaeran hastea espero dute

Urteaga kalean, Udalak Mobillas ehungintza enpresari erositako lursailetan, sustapen publikoko etxebizitzak eraiko ditu Eusko Jaurlaritzak. Lehen fasean 36 etxebizitza eraikiko dira eta obrak urte honen amaieran hasteko itxaropena dauka Udalak. Horretarako, baina, Uhola errekaeren ubideratze lanak amaitu behar dira lehenengo. Lehen fase honetan eraikiko diren etxebizitzetara, lehenengo,

San Migel kalean bota dituzten etxeetako jabeak joango dira. Asmoa bi urte barru etxeak amaituta egotea da.

Ondoren, bigarren fasean, beste 36 etxe eraikiko dira, baina horretarako Urteaga kaleko eskumako etxeak bota behar dira lehenengo. Ingurua erabat itxuraldatuta geratuko da Uhola errekaeren ubideratze lanak eta etxe guztiak egiten dituztenerako. San Antonio bidegurutzean erro-

tonda bat egiteko asmoa ere badago.

Bestalde, ekialdeko bariantea egiten dutenean, (San Migel azpian tunel bat egingo da) Beasain eta Durango lotuko dituen errepidea bertatik joango da eta San Antonion ez da gaur egun sortzen den kotxe ildarik sortuko, trafikoa asko gutxituko delako. Halere, hau guztia bukatuta ikusteko bost bat urte pasatu behar dira. B

Oraingo errentariek hartuko dute frontoiko taberna

Udal Pilotalekuko

taberna oraingo errentariei adjudikatzea erabaki du Udalak. Gabonen aurretik, lehiaketa publikora atera zen frontoiko tabernaren ustiapena, baina ez zen inor aurkeztu. Ondoren, oraingo errentariei urtarrilaren 31ra arte kontratua luzatu eta baldintza pleguak aldatuta, berriz ere, lehiaketa publikora atera zen. Bigarren lehiaketara eskaera bakarra aurkeztu zen, oraingo errentariena, hain zuzen ere. Baldintza pleguetan euskara jakitea eskatzen zen eta azterketa bat egin zitzaien euskara gaitasuna frogatzeko. Examina ez zuten gainditu, baina Udalak frontoiko tabernaren ustiapena sei hilabeterako euri ematea erabaki du, Udalari berari ez zaiolako komeni taberna itxita egotea.

Beraz, oraingo errentariei orain arte zuten kontratua beste sei hilabetez luzatuko zaie eta, ondoren, Udalak tabernaren ustiapena lehiaketa publikora aterako du berriz ere. Errentariek ehun mila pezeta eta dagokion BEZA ordaindu behar dute hilero. B

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

ARTISAUTZAKO IZOKIA

GOYO-TOKI

D. Irizar, 3 - Tlf. 761233
Mutiloategi, 24 - Tlf. 762337
BERGARA

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkalea 29 BERGARA

DEBA

GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefonoz Aranzadi 2 behea
☎ 76 21 80-76 06 37


Euskadi Gastronomía Saria eman diote Koldo Lasari

Koldo Lasa sukaldari bergararrak Euskadi Gastronomía saria jaso zuen eguaztenean Bilbon, "bere sukaldearen kalitatearengatik eta ohiko sukaldaritzazaintzeko eta plater berriak sortzeko egindako lanagatik". Euskal Gastronomía Akademiak urteko sukaldari onena izendatu du Koldo eta plaka oroigarri bat jaso zuen Mari Karmen Garmendia Kultura Sailburuaren eskutik.

Euskadi Gastronomía Sariak urtero banatzen ditu Eusko Jaurlaritzak. Aurten goa antolatzen den bosgarren edizioa da eta aurrekoetan, besteak beste, Pedro Subijana edota Juan Mari

Arzak izan dira sarituak. Koldo Lasa oso pozik agertu da Euskadiko Gastronomía Elkarteak egin dion aitortpenarekin: "sukaldean emandako orduak aitortu

dutela esango nuke eta saria niri eman badidate ere, etxeok ez ezik, gure sukaldean diharduten sukaldari gazteen lana ere aitortu da" esan digu. B



Koldo Lasa Euskal Herriko sukaldari onenen artean dago.

Piszinak itxita egongo dira datorren astean

Agorrosingo Udal

Igerilekuak itxi egingo dituzte datorren astelehenean, hilak 9, eta aste osoan zehar itxita egongo dira bertan Osakidetza urtero agintzen dituen garbiketa lanak egin behar dituztelako. Beraz, piszina txikia eta handia, aldagelak, gimnasioa, bulegoak e.a. goitik behera garbituko dituzte. Asmoa, datorren astebururako gimnasioa eta aldagelak zabaltzea da, baina bainua hartu nahi dutenek gehiago itxoin beharko dute, ura 27 gradura arte berotu bitartean ezin izango baitira barruko piszinak erabili. B

Epaitegiko idazkariaren kotxeari su eman zioten joan zen domekan

Bergarako Epaitegiko idazkariaren kotxeari su eman zioten joan zen domekan, gaueko 22:30ak aldera, ezezagun batzuek. Peugeot 205 autoa, Koldo Eleizalde kalean aparkatuta zegoen eta Zubillagako suhiltzaileak gaueko hamaiak inguruan etorri baziren ere, zeharo kiskalita geratu

zen. Ezezagun batzuek, autoaren kristala apurtu eta koktel bat bota zuten barrura. Epaitegiko idazkariaren kotxearen ondoan aparkatuta zeuden beste kotxe batzuek ere kalteak jasan zituzten, baina ez ziren erre. Egun hauetan jakin dugu Epaitegiko idazkariak mehatxuak jaso dituela. B

Bost bergararri 860.000 pezetako isuna Ertzaintza iraintzeagatik

Jose Luis Loidi, Paulo Elkoro, Xabier Arregi, Aritz Aranguren eta Pedro Zumelaga bergararrei 860.000 pezetako isuna ezarri die epaileak Ertzaintza iraintzeagatik. Francisco Javier Olleros Bergarako instrukzioko epailearen autoan esaten denez, akusatuak 1996ko irailaren 23an legezkoa zen

Gesto por la Paz taldeak antolatutako kontzentrazioaren aurrean bildu ziren "legez kanpo, bertan zeudenei askatasunez biltzeko duten eskubidea galerazteko asmoarekin". Ertzaintzari "zuek kartzeleroak zarete" oihukatzea ere leporatu ziren epaileak. Joan zen astean izan zen epaiketa. B

KONDE



Burdinate 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 76 07 92

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
☎ 76 20 34

Gallastegi

Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 76 10 85

Berrigara

310 zenbakia,
1998ko otsailak 6.

Errotalde Jauregia, 20570 Bergara
Telefonoa: 76 03 97. Faxa: 76 29 77
E.mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Mikel Elkorobereziabar. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe. **Publizitatea:** Kristina Romero. **Harpidetza:** Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate. **Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo. **Banaketa:** Txantxangorri taldea. **Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia:
Marian Porcel.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



gutunak

Iritzi, protesta edo desioren bat adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

BIHOTZ-BIHOTZEZ MILA ESKER GUZTIOI

Azken hil hauetan frogatuta geratu da Bergara etxe-multzoko handi bat baino askoz gehiago dela, alegia, sentimendu-multzoko bat dela. Mikel AIUn (UVD) sartu zutenetik behin ere ez gara bakarrik sentitu. Senitartekoak ondoan geneuzkan bai, baina gehien hunkitu gaituena zera izan da: herri-tarrendandik jasotako elkartasun-adierazpen ugariak. Konturatu gara herritar guztiak bizi zutela gure zorigaitza; gurekin batera egin dute negar, euren esku zegoen guztia eskaini digute, eze-ren truke...

Dena dela, gure harridura eta esker ona imajinatu ere egin ezin genuen puntura iritsi zen herriak Mikelek bere sendatze-prozesua Aita Menni ospitalean jarraitu ahal izan dezan behar den dirua biltzeko asmoz lanean jarri zenean. Horrelako mobilizazioen berri bagenuen arren, guk geuk bitizteak

zer nolako sentimenduak piztu dizkigun azaltzea ezi-nezkoa zaigu.

Gaur egun, Mikelen eboluzioa ondo doa. Bizitza osoa dauka zain, herriak egindako esfortzuarri esker neurri handi baten. Horrek harro sentiarazi behar gintuzke bergarar guztiok, denok, denon artean lortu baitugu. Gu geu ere harro gaudede hain berezia dela erakutsi duen herriaren partaide garelako.

Bihotz-bihotzez, mila esker guztioi!


Vicente-Diaz familia

tira biraka: alex ugalde



■ atrebentzia ezpada

Aukera edo ahalmena izanez gero, zertan gastatuko zenuke zuk Udaleko dirua?



Blas Ugalde

Kale batzuek konpontzeko premia badute... Gazteen-tzako lokalak ere eskatzen dituzte, baina gaztetan geuk egiten genituen txabolak inoren zain egoteke.



Aintzane Zubia

Kale askotan zorua konpondu beharko litzateke eta gazteentzako lokalak ere falta dira. Horretan gastatuko nuke dirua.



Arantza Alberdi

Herrian premiak badaude: erreka garbitu egin beharko litzateke, Joan XXIII.a plazak ere konpontzeko premia badu...



Angel Trapero

Bideberri oso egoera kaskarrean dago eta konponketa premia badauka; orokorrean, kaleak txukunago jarriko nituzke.



Eva Rodriguez

Azkenaldian gauzak ondo egin dira. Herrian, autoak aparkatzeko arazoak daude. Udaltzainak, ordu jakin batzuetan ez lirateke hain zorrotzak izan behar.



Erik Iztueta

Gaztetxe batean eta lokaletan gastatuko nuke dirua eta Kiroldedia erabiltzeko tarifa merkatu egingo nuke. Gazteen egoera hobetzen gastatuko nuke dirua.

■ bai, esan!



Gertaera edo ekintzaren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Mikel Lezetak deitu zigun eguakitzean, salaketa bat egiteko. Mikelen arabera, Altos Hornoseko eliza ostetik Santa Katalina auzora doan errepidea oso egoera txarrean dago aspalditik eta ordua da Udalak beharrezko konponketa egiteko. Mikelek adierazi zigunez, zulo haundiak eta sakonak daude errepide tarte horretan eta kotxean joan beharra dago, kotxeak kalterik izan ez dezan. Mikelek behin baino gehiagotan salatu ei du errepidearen egoera, baina, antza denez, ez diote kasu haundiegirik egin. Kotxe zein oinezkoen onerako, errepidea konpondu dezatela eskatzen du.

■ ikuspuntua: **jesus kalboetxeaga**

Karla Tucker

Bere heriotzak, Estatu baten legearen babesean aplikatuak, komunikabideetako espazioak bete ditu. Egia esan, exekuzio bat gehiago da, munduko bazterren batean ia egunero egiten den horietako bat. EEBBetan bakarrik, 70 heriotz zigor betetzen da urtero. Oraingoan, emakume zuri baten kasua izateak eta azken egunetan fundamentalismo katolikoa sutuki besarkatu izanak erakarri du mundu guztiaren arreta. Heriotzaren korridoretan zain dauden milaka pertsonak, beltzak dira gehienak. George Bush semeak ko-




lokan ikusi du bere kargua eta nahiago izan du datozen hauteskundeetan berriz aukeratu dezaten gogor apustu egitea, Karlak bizirik iraun dezan lagatzea baino. Texastarrak oso bereziak dira krimenari aurre egiterakoan. Errepublikar nahiz demokrata izan, ipar ameriketan zoritxarrez famatu egin den estatu horretako gobernadoreak prest azaltzen dira euren botoemaitza mendeku-egarria asetzeko. Bapatean erlijiora bihurtzeak ere ez dio bizia barkatu,

erlijio katolikoko sektorerik ultrakontserbatazaileenak ere bere bizitzaren alde agertu diren arren, nahiz eta heriotz zigorraren defendatzaile amorratuak izan.

Komunikabideetako gertaera galkor bat izan da Karla. Bat gehiago. Seguru asko, datorren astean beste bizitza bat itzaliko dute aulki elektrikoan edo injekzio letalaren bidez. Karla Tucker, Ramon Sampedroren kontrapuntu bihurtu da egun batzuetarako. Te-traplejiko horrek bere biziaz beste egiteko baimena eskatu zien instituzioei, bizia obligazioa ez baina eskubidea dela adieraziz. Eskubide hori bera ezberdin bihurtzen da, hala ere, esku batetik bestera. B

■ asteko menua

Bildots errea



KONTXI IDIGORAS
Panaderokua jatetxekoa

OSAGAIK (4 lagunentzat)

- 1,5 kilo bildots.
- 150 gr oliba-olio.
- Gatza.
- 3 berakatz-ale.
- Kipula erdi.
- Koñak pixka bat.
- Baso bat ardo zuri.

PRESTAKETA

Bildotsa oliotan ondo erretakoan, koñakarekin flanbeatu; ondoren, berakatz, kipula eta ardo zuria bota.

Ondubetez eduki labean, 160 gradutan, eta jateko gertu!

■ adituen esanetan

Kaspa eta koipe arazoak

CELIA GOMEZ, *Kizkur ileapaindegikoa*

Buru-azala gorputz azalaren prolongazioa litzateke eta, ilea koipetsua edukitzea sego-guruinetan gehiegizko produkzioa izatearen ondorio da. Koipe arazoak tratatzeko espreski dauden txanpuak erabiltzea gomendatzen da baina ez da ilea sarritan garbitu behar. Garbitzean, ez da komeni ur oso beroa erabiltzea eta, hatz-mamiekin, masaje suabe bat emango diogu buru-azalari. Ilea uretan ondo eragin beharra dago garbitu ondoren eta ile-lehorgailuak neurrian erabili. Garbiketarik astean zehar bananduko ditugu; askotan garbituz gero, sego-guruinak eszizatu egiten dira eta ondorioz, koipe gehiago sortuko da.

Kasparen kasuan, buru-azalaren lehoriketa ematen da eta desatsegina da askotan azkura sortzen duelako. Aipatutako bi arazo hauetan arazo estetikoak ere nabaria da eta egia da gaur egun erabiltzen diren tratamenduak nahiko efektiboak direla: txanpuak, anpuluak, etabar.

Tratamendu egokiarekin asmatuz gero, arazoa konpondu daiteke. Era berean, egia da askotan ilean kaspa edo koipea agertzea gorputz barruko egoeraren islada dela eta, beraz, estres egoerek edota elikadura txar bat eramateak zerikusia ere badute. Gora-behera hormonalengatik ere agertzen dira kaspa eta koipe arazoak askotan. B

■ bergarako gordailutik

BASERRIEN EGOERA NEGARGARRIA XVIII.eko BIGARREN ERDIAN

Imanol Sorondo

Bergara guztiko biztanleak 3.400 inguru ziren. Oxirondokoak, Osintxu tartean, 1.885; horietatik 982 emakumezkoak eta 903 gizonnezkoak. Oxirondon gehienak baserritarrak ziren, eta 200 baserri inguru zeuden.

Santamainako maisuak, Rafael Garitano Aldaetak, nahigabeturik eta gauza batzuk eskatuz, Oñatiko Ganbara 'tar jaun konteari zenbait eskutitz idatzi zizkion; alegia:



Baserri askok gela zabal bat bakarra zeukatela eta bertan ohe guztiak, lehenengo ospitaleen modura; gizaki bat gaixo zegoenean han zirela kontuak konfesioko sakramentua egiteko. Baserri gehientzuenak tximiniarik ez zeukatela. Osintxu eta San Prudentzio guztian ez zirela bi edo hiru baino gehiago izango irakurtzen eta idazten zekitenak. Sendagilea ez omen zela auzartzen bera bakarrik bide batzuetan zaldiz joatera, hain zirela estuak, konkorrak eta irristagarriak. Lehen, gehienak bere baserriaren jabe zirela, eta orain maizterrak. Nonbait, urte txarrak sailean joan ziren eguraldi aldetik; beste alde batetik, zerga haundiak zeuden eta kaleko aberatsei dirua eskatu beharrean aurkitu ziren, gero ordaintzekotan; gauzak ez ziren hobetu eta askok baserriaren jabetasuna galdu egin zuten. B

Santa Ageda eskean

Makila eskuan zutela eta baserritarrez jantzita, herriko ikastetxeetako ikasleak kantuan atera ziren eguaztenean, **Santa Ageda bezperan**. Ikasleak kalez kale ibili ziren abesten, Santa Ageda eskean.



Mariaren Lagundiako ikasleek batutako dirua Mexikoko Guerrero estatuan egin nahi diren proiektuetara bideratuko da. Bestalde, Jubilatuen abesbatza, Alai taldea, Udal Euskaltegia, AEK edo Jardun ere kalera atera ziren eguaztenean. Urteik urtera huts egiten ez duen ohitura...

Patata-dastatzea

Gure Ametsa elkarteko **25. urteurrenaren** inguruan antolatutako ekitaldien barne, aurreko astean patata-dastatzea egin zen. **Jose Mari Borja eta Jesus Jauregi** bertako bazkideak **Patataren Kofradiako** kideak ditugu (beheko argazkian **Isidro Urzelai** Kofradiako presidentearekin) eta kofradiaren helburu nagusienetako bat patataren bariedade ezberdinak bereizten erakustea da. **Javier Pascualena** Arkauteko Ikertze Zentruko kideak adierazi zuenez, Euskal Herrian **514 patata bariedade** daude erregistratuta ea Europa osoan, berriz, 1.600 inguru. Eguenean sei bariedade ekarri zituzten Gure Ametsara eta hainbat herritar ezagunek bakoitzaren balorazioa egin zuten, pataten zaporea, itxura eta beste hainbat ezaugarri puntuatuz.



Mikel Vicenteren aldeko jaialdia

Zapatuan **700 ikusle** inguru bildu ziren Frontoian, **Mikel Vicenteren** alde antolatutako jaialdian. Mikelen lagunek eta familiartekoez, herriko hainbat talderen laguntzaz, jaialdi erakargarria antolatu zuten. **Maite Aristegi** aurkezle lanetan aritu zelarik, herriko abesbatzak (argazkian, Alai taldea), abeslariak, trikitilariak edota dantzariak igaro ziren eskenatokitik. Lezoko Txistulari Bandak ere hartu zuen parte jaialdian eta ikusle zein antolatzaileak pozik azaldu ziren jaialdi amaieran. Bestalde, Karnabaletarako Orkestra Sinfonikoarekin kontzertu bat antolatzeko asmoa dute Mikelen lagunek.



Zatoz gure Bergarako Saldu Osteko instalazioak ezagutzera.



**Pneumatiko berriak behar
dituzu?**

Erabil itzazu Renault Menu
Horiaren abantailak.

5.738

muntaketa eta
gurpil-berdinketa
dohainik

Pta.tik



TALLERES MECA

Amillaga, 5 - BERGARA - Tel. 76 40 68

RENAULT

Pili Manso optikak bere bezeroei

Erreformak direla eta, astelehenetik aurrera, hilak 9, oraingo
dendaren ondoko lokalean izango gaituzue zuen zerbitzura,
lehen "Eroski elektragailuak" Simon Arrieta plazan zegoen tokian.

BARKATU ERAGOZPENAK.

P. MANSO
Optika

Telefona: 76 27 86

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 10 zenbakia. 1998ko otsailak 6.

Bake Epaitegia eguenero udaletxean

Oñatiarra eta bilbotarra dira epaitegiko langile berriak

Urtarrilaren 22an jarri zen martxan "Bake epaitegietako idazkaritzen elkarte". Elkarte honek Antzuola, Elgeta eta Urretxuko bake epaitegietako lanak egingo ditu. Antzuolan eguenero arituko dira Amaia Arrazola, oñatiarra, eta Asun Llorente, bilbotarra, Bake Epaitegiko lanak egiten.



J


aiotza zein ezkontza agiriak, heriotza agiriak, edota izen aldaketak egitea izango da, beste batzuen artean, Amaia eta Asunen lana. Udale-

txean egongo dira eguenero goizeko 9etatik 14:00ak arte. Orain arte lan hauek udaletxeko langileek egiten zituzten baina hemendik aurrera, Eusko Jaur-laritzak horretarako bidali dituen bi pertsona hauek arituko dira.

Astelehen, eguazten eta eguakitzetan Urretxun, martitzenetan Elgetan eta eguenero Antzuolan izango dira eta nahiz eta oraindik ez diren ohitu egun bakoitzean herri batean egotera, "denborarekin ohituko gara, zeren azkenean antzerako gauzak egin behar ditugu bai hemen, Urretxun, edo Elgetan".

Eginbehar berriak

Antzuolako epaitegiko lanak betetzear gain, bi langile hauek enbargoak eta halakoak egin beharko dituzte. Berrez, orain arte Bergarako Epaitegitik eramaten ziren horrelako kasuak. Norbaiti zerbait ez ordaintzeagatik etxea kentzen diotela edota zigor moduan euren ondasunak enbargatu behar izatea ere bi langileon lana izango da. Asunek dioenez "norbaitengana joan eta bere etxetik al-



Bake Epaitegiko langile berriak

de egin behar duela esatea oso gogorra da; orain Urretxun enbargu bat egin behar dugu eta horrekin pentsatzen aritzen zara denbora gutzian".

Egueneroko lanak

Amaiak eta Asunek oraindik ez dute herria ondo ezagutzen eta berdin gertatzen zaie Urretxun eta Elgetan; baina hiru herrietan portzentaia berean egin behar izan duten diligentzia bat aurkitu

dute: izen aldaketa eta izen edo abizenak euskal grafian jartzea. "Gehiago edo gutxiago baina lana antzekoa da hiru herrietan; hala ere gehien egin duguna izen aldaketak izan dira, eta abizenak eta izenak euskal grafian ipintzea".

Euskaraz lan egiteari buruz, biek adierazi dutenez, "justizia administrazioa oraindik ez dago euskaraz lan egiteko prestatua, idazkier dagokienez behintzat; hala ere denborarekin lortuko dela uste dugu".

■ ■ ■
Amaia eta Asun Udaletxean egongo dira
egenero 9:00etatik 14:00ak arte
■ ■ ■

Gaztetxeko arduradun berriak

Joan zen zapatuan, urtarrilak 31, Gaztetxeko arduradunak hautatzeko bozketa egin zen. Bi talde aurkeztu baziren ere, orain arte egondako 5 lagun eta beste hamar berri sartuko dira urtebeterako. 18-19 urte arteko gazteak aurkeztu ziren. Orain arte egondakoen esanetan "merezi du hemen aritzeak, baina urtebete nahikoa da; gainera gazte guztiek egin beharko lukete urte bat hemen". Hala ere, Asanblada baten beharra somatu dute orain arte Gaztetxean lanean jardun dutenek. "AGAk mugitu beharko luke Gaztetxea eta ez barrakoek, bestela, arriskua egon daiteke barrakoak alde egitean mugimendurik gabeko Gaztetxe batekin gelditzeko".

Arduradun berriak Gaztetxea pintatu eta gero hasiko dira lanean, horretarako otsaileko bigarren astean Gaztetxea itxiko dutela adierazi digute.

Gazinema

Otsailaren 6an, eguakitzan, 22:00etan *Broken Arrow* filmea ikusi ahal izango da eta domekan, otsailak 8, 16:30etan *Napoleón (el perrito valiente)*. Hurrengo asteko eguakitzean, otsailak 13, 22:30etan 2013: *Rescate en L.A.* filmea emango dute Gazinemakoek eta domekan, otsailak 15, 16:30etan *Libera a Willy 3*.

Mendian seguru ibiltzeko ikastaroa Pirinioetan

Arrolak otsailaren 28, zapatua, eta martxoaren 1erako, domeka, elurretan granpoiak eta pioleta ondo erabiltzen ikasteko saioak antolatu ditu Telera mendian Federazioarekin batera. Izena ematea otsailaren 11 eta 12an Arrolaren lokalean. Ikastaroa 7.500 PTAn izango da, baina ikasleentzako prezio berezia jarriko dutela adierazi digute Arrolakoek.

San Blasak Basalden

Belarra moztu, ermita eskobatu, bankuei argizaria eman, altarea garbitu, santuari hautsa kendu... Dena prest dago otsailaren 7an opilak bedeinkatzeko San Blaseko ermitan.

Bi urtean behin maiordomoa aldatzen da Basalde auzoan eta berau izaten da San Blas txukuntzeaz arduratzen dena. Bigarren urtez Altzetakoak dira maiordomo. Hala ere, Aloña, Ana, Angel, Bittori, Bittor, Ester, Irune, Isabel, Mari Karmen, Mirari, Jesus, Jose Luis, Jose Mari, Julian eta Pakita aritu ziren joan zen zapatuan ermita gertatzen. Ondoren, Tomasak prestatu ohi duen txokolatea meriendatu zuten. Txokolateaz gain, ohi-tura da Aitzabasaldeko Tomasak untzarekin koroa egitea San Blasi.

Meza ostea

Meza ondoren, ermitaren aurrealdean, taberna ipiniko dute auzokoek eta bertan, Egurrabei eta Altzetan egiten den salda eta Aitzabasalden egositako txorizoa dastatzeko aukera izango dute

bertaratzen diren guztiek. Ogia ere garai batean bertan egiten zen, Galardin, baina orain dela lau bat urtetik hona kaletik ekarri behar izaten dute.

San Blas eguna otsailaren 3an izan bazen ere, zapatuan ospatuko dute Basalde auzokoek. Bazkari berezia egiten da auzoko baserrietan eta kalean bizi diren senitartekoak gonbidatzen dituzte. Herriko abadea maiordomoaren etxean gelditzen da bazkaltzen.

1802tik San Blas izenaz ezagutzen den ermitak, zapatuan, hilak 7, zabalduko ditu bere ateak, katarroaren eta eztriko minaren aurkako kandelak pizteko eta hain ezagunak diren San Blas opilak bedeinkatzeko.

Santa Ageda Galartzan

Galartza auzokoek Santa Ageda eguna ospatuko dute domekan, otsailaren 8an. Eguerdian meza izango da eta horren ondoren, 12:30ak aldera, salda, ardoa eta pintxoak eskainiko dizkiete bertara joaten diren guztiei. Gainera, trikitilariak ere izango dira giroa alaitzen.



Basalde auzokoek San Blas txukuntzen.

igor eta Txomin

Pintura orokorrean.
 Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.
 Gotelesa, iztukuak eta
 bestelako imitazioak.

ANTZUOLA BERGARA
 ☎ 76 60 39 ☎ 76 19 98

ANTZUOLAKO BASERRIETAKO
HARAGI
 NATURAL ETA ONENAK

Juan Jose AGIRRE

Kalebarren 1, ANTZUOLA Tf.: 76 64 84

GOROSTI
Taberna

☎ 76 62 96
 Zurrategi plaza ANTZUOLA

Aiherra kalea Antzuolan

Kalebarrengo etxe berrien kalea Aiherra izendatu dute. Pasa den urtarrilaren 20an egin zen udalbatzarrak aho batez hautatu zuen Aiherra izena, beste hiru izenen artean. Horietako bat San Bartolome zen, Kalebarre- nen zegoen ermitaren izena hain zuzen ere.



Patxi eta Pollero trasladatuak

Juan Jose Aranburu eta Patxi Olabarria kartzelaz aldatu dituzte. Madril jarraitzen duten arren, Pollero, Valdemorotik Soto del Real kartzelara eraman dute eta Patxi, berriz, Alcalá Mecotik Navalcarnerara.

Bideoa Gaztetxean

Datorren domekan, otsailak 8, Antzuola- rron Independentzia Eguneko irudiak eskainiko dira Gaztetxean 18:00etan.

Berrigara gidak

1998ko Berrigara Gida jaso ez duenak, liburutegian eta Kontuolan jaso ahal izango ditu otsailean. Antzuola eta Bergarako denda, taberna, espresa eta antzekoen telefonoz gain, partikularrenak ere badaude.

Arratetik Kalamuara

Otsailaren 22an Arrate Kalamua mendi irteeran parte hartu nahi dutenek, otsai- laren 16an eman beharko dute izena, 19:00 etatik aurrera Arrolaren lokalean.



Uzárraga eta Zumárraga

Foru Aldundiak ipini berri duen bide- seinaleak komentario bat baino gehiago sortarazi du herrian. Dagoeneko Antzuolako Udalak deitu du Diputaziora kexa aurkezteko. Matz-Erreka pareko seinalea gaztelaniaz dago nahiz eta bertsiio ofiziala euskaraz izan.

GURE ARTIAN

San Blasetan opila bedeinkatzera joaten al zara?



Antoni Zubikarai

Urtero juten naiz bost bat opillekin, bakoitza bere serbilletiakin lotuta, guriak eta amanekuak. Kandelía pizten dot katarruandako eta karameluak pe eruaten dittut.



Igor Lezeta

Txikittan juten nitzan nere ogixakin. Baiña etxaten gustatzen ogixa jatia, gogorra egoten zan eta bakarrik probatze- ko jaten neban. Oin ohian geratzia nahixao dot.



Miren Aranguren

Batzutan juten naiz. Lagune- kin jutia gustatzen jat. Opilla eskuan eruaten dot eta uste dot gusto di- ferentia eukitzen dabela. Aurten ogi- xakin karameluak eruango dittut.

ANTZUOLA

Apainketak eta isolamenduak Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 72 30 05
Biltegia: 78 70 40

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 76 64 23

GAILUR

taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 78 70 32

Santa Ageda eskian

Hemezortzi urte beteko dituzten gazteak etxez etxe eta baserriz baserri ibili ziren eguaztenean, otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, kantuan eta eskean. Ohiturari jarraituz beheko zein goiko baserri batzuetatik pasa ziren goizetik, eta eguerdirako kalera etorri ziren bazkaltzera.

Aitor, Ion, Ibai, Urko... gutzira hamabost lagun eta lau trikitilari aritu ziren "Santa Ageda bezpera degu..." abesten. Ilusioa zuten egun hau iristeko, "beti esaten da juerga haundixa dala, egun dana etxetik kanpo eta gaba be bai...".

Zortzi lagun joan ziren goiko baserrietara eta zazpi behekoetara. Guztira 80 baserri dira. Behera joan zirenek ibilbidea azaldu ziguten; "lehenengo Etxezuri eta egitten dira; gero Beteixotik Gorla azpira jun eta Ugarrixan kantau. Bergarara ailegatuz hamarretakua egitten da Euzkitzan. Kamiñotik bueltan, Bekorrotta ta, eta gero bazkaltzera. Arratsaldian, Azkarate eta Ireta pasau eta Jauregittik, Lizarragara jeisten da".

Non elkartzen zarete gora eta behera joandakoak?

Bizkalatza azpitan alkartzen gara normalian. Txanbolin, Torre eta Anbu basarrixak batera egitten die eta gero kalera etortzen gara danak batera.

Garai batean ateratzen zen dirua soldadu joateko izaten zen, orain, ordea, ez zarete inor joango; zer egiten da batzen den diruarekin?

Bai, teorixan dirua soldauzkara juteko zan baiña oin insumiso egin eta abogaua pagatzeko erabiltzen da -barreak-. Dirua zenbat etaraten dan eztagigu, baiña bai zetarako ailegatzen dan. Bergaran poteau egitten da baiña taber-

narixak erak pagatzen dabe. Bazkaixa eta afarixa debalde irtetzen jaku etarutzen dogun diruakin, eta eguneko edana, Idiazabaleraiñoko autobusa eta bertan gaba pasatzia be diru horrekin egitten da; gaiñera, igual beste afari bat egingo dogu sobrautako diruakin.

Entseurik egin gabe, goizeko seletan atera ziren plazatik petardoak bota ondoren.

Egunian bertan ensaiatzen da; etxian ikasi egun bat lehenago eta aurrrera. Segiduan ikasten da, gaiñera hiru estrofa die bakarrik, bat kalerako eta bi

basarritarako. Urtian zihar basarriren batian hildakoren bat egon bada, han ezta kantatzen, errezau egitten da. Aurtan bai goixan eta bai behian, biña basarritan egin biharko dogu errezua, goixan Arlutz eta Ertzillen eta behian Jauregi eta Ugarrixan.

Urtero egoten da kinto egunean kanpotik etortzen den norbait; zuek ere ba al duzue kanpoan bizi den kintoren bat?

Bai badare baiña eztaoz. Bost lagun die; Deskargakua, Gasteizko biki-xak, Olaortuanekua Bartzelonan eta Mallorkan beste bat.

Aspaldian neskak ere egoten dira euron kintoekin Santa Ageda bezperan.

Afalosteko kafera etortzen die normalian.

■ ■ ■
 "Urtian zihar basarriren batian hildakoren bat egon bada, han errezau egitten da"
 ■ ■ ■




Kintoek gogotsu jardun zuten kantu-kantari.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
 ANTZUOLA



Z Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 78 71 79, Tf. eta F. 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Euskara pantailara

Laburmetraiak euskaraz sortzen

Azken urteotan euskal zinea de-ritzanak indarra hartu du Julio Medem, Juanma Bajo Ulloa edota Alex de la Iglesia zuzendariak eginiko lanei esker. Baina oso lan gutxi dira euskaraz errodatzen direnak eta gutxiago oraindik pantailara iristen direnak. Euskara, oraingoz, laburmetraietara mugatuta dago eta horren adibide ditugu Asier Altuna "Kixi" (zinean) eta Xabier Alberdi "Sato" (bideoan) bergararrek eginiko lanak.

Aitor Agorria, Jon Andueza eta Xabier Alberdi "Sato" k osatzen duten lantaldea, beste hainbat lagunekin batera, beren bigarren laburmetraia grabatzen ari dira Kantabriako Oriñon herrian, Sonabiako hondartzan. Laburmetraia bideo formatoan grabatuko da eta istorioa Jon Andueza kazetari arrasatearrak idatzitakoa da; haurdun dagoen neska bat (Miren Gojenola aktorea) eta Down sindromea duen mutil bat (Gorka Zufiaurre gutxitu psikikoa) hondartzan elkartu eta bien artean erlazio berezia sortuko da. "Bernar" izango da lanaren izenburua.

Bideoan grabatu arren, "Sato" k adierazi bezala, zineko eskema erabiltzen dute lanerako. Grabaketa planoz plano eta kamara bakar batekin egiten da eta astebukaerak aprobetxatzen dituzte errodaia egiteko, beti ere egualdiaren menpe daudelarik. Taldearen bigarren lana da honako hau. Aurretik beste laburmetraia bat egin zuten, "Laugarren galeriatik" izenburukoa eta Lekeitioko zine eta bideo jaialdian saritu zutena. "Sato" ren hitzetan, "Andueza eta biok ETBko Gutxi gorabehera saiotik ezagutzen genuen elkar eta kortoren bat errodatzeko asmoa genuen. La-



MARIAN PORCEL

"Bernar" izenburuko laburmetraia Kantabriako Oriñoneko Sonabiako hondartzan grabatzen ari dira "Sato" eta bere lagunak.

Lekeitioko jaialdia, eskaparate bakarrenetakoa

Gaur egun euskaraz egindako lanen jaialdi bakarra Lekeitiokoa da. Euskal Zinema eta Bideo Bilerak bere 20. edizioa bete zuen abenduan. Jose Luis De la Torre jaialdiko ordezkariaren hitzetan, "transizio garaian hasi ginen euskaraz egindako zinea bultzatu nahian eta, zailtasun asko gainditu eta gero, horretan jarraitzen dugu. Lehen Zes-toan eta Zarautzen ere antolatzen ziren jaialdiak, baina desagertuta daude dagoeneko". Azken ediziora 50 lan aurkeztu ziren eta aukeraketa egin ondoren, 26 lan izan ziren lehian. Hiru kategoria bereizten dira: dokumentalak, laburmetraiak eta gai librea (bideo-klipak esate baterako). Gehienez, lanek ordu erdiko iraupena izan behar dute.

"Laugarren galeriatik" laburmetraiak eraman zuen zilarrezko antzarra, lehen saria. De la Torreren ustez "oraindik ez da euskaraz luzemetraiarik egin merkaturik ez dagoelako. Kortoetan ikusten dira lan interesgarriak, baina egile gehienek ETBn edo produktora batean lanean amaitzen dute. Euskal zinean pauso batzuk eman dira, baina oso zaila da aurrera egitea, luzemetraia bat egiteko diru asko behar da". Lekeitioko jaialdiak ere garai hobekak ezagutu ditu; "1990eko hamarkadaren hasieran ibili ginen ondoen, diru gehiago zegoen jaialdirako. Aurten bi milioi eta erdiko zorrak izan ditugu, baina aurrera egingo dugu. Urte batean huts eginez gero zaila litzateke jaialdia berreskuratzea".


***"Ez dira euskarazko lan gehiago egiten zinea, hau da, fikzioa sortzea garestia delako eta, bestetik, honetara animatzen den euskaldun gutxi dagoelako"* JON ANDUEZA**

burmetraia egitea telebistako lana baino teknikoagoa da. Argiztapenez arduratzeko pertsona bat behar genuen eta Aitor Agorriari deitu genion lehen-dabiziko kortoa egiteko. Ondoren, bigarren hau egiteko ideia etorri zen eta horretan ari gara orain. Guztira, 15 bat lagun gara eta jende gehiena musutruk ari da lanean. Hala ere, baliteke oraindik ere dirua galtzea. Ea dirulaguntzak lortzen ditugun..."

Talde-lana

Lana zehaztuta dago: Andueza zuzendari artistikoa da, Agorriak argazki zuzendaritza dauka bere gain eta "Sato", berriz, produkzioaz arduratzen da. Hala ere, "Sato"k esaten digunez, "azkenean guztiok denean sartzen gara. Talde-lana da". Euskaraz errodartzeko erabakia guztiz naturala izan zen; "euskaraz bizi gara eta euskaraz egin nahi

genuen nahiz eta gero ez den batere erreza izaten kortoei irtenbidea topatzea; jaialdiren batean aurkezten duzu, inguruko lagunei erakusten diezu eta, hortik aurrera, ETBk, agian, erosiko dizu". Jatorrizko euskarazko bertsioari gaztelerazko azpitoluak jarriko dizkiote, aurrekoan moduan. Jon Anduezaren ustez bi arrazoiengatik ez dira euskarazko lan gehiago egiten: "alde batetik zinea, fikzioa egitea garestia delako (egin behar den inbertsioari ez zaio etekinik ikusten) eta, bestetik, horretara animatzen diren euskaldun gutxi dagoelako". Hala ere, bere ustetan egoera sekula baino hobea da: "ikuskitararako kultura handiagoga da, aktore euskaldun asko dago eta honetan lan egiteko prest dagoen jendea ere, euskaraz lan egiteko ondo prestatuta dagoen jendea". Lanak zabaltzeko orduan laguntza pitin bat faltan botatzen du Anduezak: "behin lana amaituta eta gero askotan lana erakustera herriz herri joan beharra daukazu, gure esku dago dena eta horrek jendea erretzen du. Ez dago zirkuiturik laburmetraiak erakusteko eta Euskal Herrian diren euskara elkarteek, adibidez, lan interesgarria egin lezakete". Etorkizunean luzemetraia egitea gustatuko litzaioke Joni: "azken batean kortoak egitea ikasketa prozesua da, mundu hau zelako den ezagutu eta etorkizunean beste proiektu batzuei aurre egin ahal izateko".





Ezkerreko argazkian Telmo Esnal eta "Kixi"ren "Txotx" laburmetraiaren errodaiko trudi bat. Alboan, Jon Andueza bere taldekideekin batera domekan Sonabiako hondartzan, grabaketa prestatzen.

MARIAN PORCEL

Euskaraz errodatu

Asier Altuna "Kixi"k eta Telmo Esnalek ere euskaraz errodatu zuten hainbat sari lortu dituen "Txotx" zine laburmetraia. Orain, Madrilen ari da lanean "Kixi", La Cuadrillaren (Justino eta Matias, juez de linea filmeen egileak) filme berrian argiztatzaille lanetan. "Txotx", berak zuzendutako lehen kortoari buruz, "Kixi"k zera diosku: "argi geneukan istorio hori euskaraz errodatu behar genuela. Sagardotegi batean girotuta egonda, ez zitzaigun burutik pasatu ere egin erdaraz egitea, indarra galduko luke guztiz. Istorio bat euskalduna denean beti saiatu behar da euskaraz egiten". Kortoari azpitoluak jarri zizkioten Euskal Herrikan kanpo erakutsi ahal izateko. "Bikoiztea baino, nahiago genuen jatorrizko hizkuntzan gaztelerazko azpitoluekin aurkeztea, bikoizketan beti indarra galtzen delako. Hemen ez dago ohiturarik filmeak jatorrizko bertsioan ikusteko, ez dago aukerarik, gainera. Gehiengoari dena eginda eman behar diozu. Ni, behintzat, jatorrizko bertsioen aldekoa naiz". Dirulaguntzak jasotzeko orduan, "Ki-

xi"ren ustez ez dago alderik euskaraz ala gazteleraz errodatzearen artean.

Proiektu berria dauka "Kixi"k Telmo Esnalekin batera. Apostuen inguruko laburmetraia izango da, "40 ezetz", eta umore beltza izango da ardatz nagusia. Lan berria ere euskaraz egingo dute baita: "luzemetraia noizko? Gustatuko litzaiguke egitea baina hor diru kontua da arazo nagusia. Laguntzak lortu beharko genituzke Jaurlearitzatik, Europatik edo beste nonbaitetik. Pena da, gero banatzea hain nekeza izatea. Oso nekeza izango litzateke euskaraz egindako filme bat Euskal Herrikan kanpoko zineetara heltzea eta Euskal Herrikan bakarrik erakusteko, ba, ez da errentagarria".

Mikel Laskurain aktoreak dozena erdi bat kortotan eta bizpahiru filmetan parte hartu du, baina zinean ez du, oraingoz, euskaraz lan egiteko aukerarik izan: "nire ustez, komertzialki ez dela errentagarria uste dutelako ez da euskaraz zine gehiago egiten.

Hemen ez dago ohiturarik filmeak jatorrizko bertsioan, azpitoluekin egiteko, dena bikoiztuta izaten da". Hala ere, etorkizunean egoera bestelakoa

izan daitekeela esaten digu: "zinegile gazteak, alfabetatuta datozenak, igual euskarazko zinea egitera ausartuko dira aurrerantzean". Goenkale telesailak ikusle pilo bat lortu ditu azken urteotan. Dena dela, telebista eta zinearen arteko bereizketa egiten du Mikelek: "euskarazko telebista badago eta jendea ohitzen joan da, baina zinearekin ez da oraindik horrelakorik gertatu. Oso lan gutxi egiten dira eta erakusteko ere zailtasun handiak izaten dira".

Askotan euskal zinea aldarrikatzen da, zuzendari euskaldunen batek Estatuan arrakasta lortzen duenean, Bajo Ulloa, Alex de la Iglesia edota Medemen kasuekin gertatzen den moduan. Mikelen ustez, "zinea egiten duten euskaldun batzuk dira, baina ez dut uste euskal zinea deritzan hori dagoenik. Gainera antz handirik ez dute batak bestearekin... Gainera, pelikula Madrilen egiten bada, pentsa, euskaldun batek egindako pelikula izango da, gai-nontzeko ekipoa hangoa bada... Oso aukera gutxi daukagu zinean lan egiteko eta hemen errodatzen diren filme askotarako protagonistak ere kanpotik ekartzen dituzte". B

"Argi geneukan "Txotx" euskaraz errodatu behar genuela. Sagardotegi batean girotuta egonda, gazteleraz indarra galduko luke guztiz" ASIER ALTUNA "Kixi"

Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

ZAPATUAN BARRUAN

09:00: La Juve-Ezinleike
10:00: Autoberezi-Aldoka Maldoka
11:00: Moskis-Bar Ganbara

Autoberezi
Ezinleike
Aldoka

ZAPATUAN KANPOAN

10:30: Ari Ari Ganbara-Amilotx
11:30: Matxakategi-K. Piperrak
12:30: Uve Bikoitza-Indargarri

Matxakategi
Bar Ganbara
K. Piperrak

DOMEKAN BARRUAN

09:30: Txipiron-Igandekoak
10:30: Jakina PT-MRW
11:30: Gazteak-Usoa
12:30: Guadalest-Manitou
16:00: Ortzzi-Azpeitxi Jatetxea
17:00: Jauja OH Zerezos-Errotagain
18:00: Arloteak/Oilagorra-Pagomendi
19:00: Mongatxurak-Etxagi
20:00: Bildurbarek-A Ze Flaxa Etxagi

MRW
Txipiron
Jakina PT
Usoa
OH Zerezos
Pagomendi
Mongatxurak
A Ze Flaxa
Etxagi

DOMEKAN KANPOAN

10:30: Shaktale-FAC
11:30: Poli. Taberna-EH Biterrak
12:30: Artusamak-Bayer
16:00: Etengabe-Patatus
17:00: Bar Canalejas-Agiñaspi
18:00: Agirrebeña-Amozkibar
19:00: Ufala-SLO

Poli. Taberna
FAC
EH Biterrak
Bar Canalejas
Amozkibar
Agiñaspi
Agirrebeña

argi!

Martitzena partiduak aldatzeko eguna

Partiduren bat aldatu nahi duten taldeek, martitzenetan egin ahal izango dute 18:00etatik 18:30etara Kultur Etxean.

jokoz kanpo



Karlos Sanchez
JAUJA OH ZEREZOS

G. Zer moduz zabilzate?
E. Azkenaldian hobeto, baina orain arte negargarri jardun dugu. Jende gutxi etortzen da jokatzera.
G. Fitxaketarik egin duzue?
E. Bai. Jose Ramon Iturbe fitxatu dugu, pizgarria izango delakoan.
G. Hobera egitea espero duzue?
E. Jotaren fitxaketarekin eta "Soso"ren ekarpenarekin sailkapenaren erdialdean geratzea espero dut.
G. Zuen taldeko gauzarik onena?
E. "Soso"ren abiadura eta Alvaroren patxada defentsan.
G. Txapelketan izan duzuen partidurik gogorrena?
E. Mongatxurak taldearen aurkakoa, azkenengo segunduetan galdu genuen eta.
G. Txapelketako talderik onena?
E. Manitou.
G. Golik sartu duzue?
E. Azkenaldian ahaztu egin zait.
G. Real UEFArako sailkatuko da?
E. Bai.
G. Mundiala zeinek irabaziko du?
E. Argentinak, baina agian sorpresatxoren bat izan daiteke.
G. Ligako jokalaririk onena?
E. Luis Enrique.

gora eta behera



Etxagi, Moskis eta FAC

Etxagik 13 gol sartu zizkion Arloteak/Oilagorri, FACek 10 gol La Juveri eta Moskisek beste 10 gol Komando Piperraki. Aipatzekoa da Etxagi taldeko Laskurainek, Manitouko Igor Alberdik eta Matxakategiko Kepa Leturiak 4na gol sartu dituztela.



Patatus eta Jakina PT

Patatus eta Jakina PT taldeak ez ziren partiduetara aurkeztu. Zapatu goizean jokatzera eta jai egun baten ostean gogorra da, baina partiduak atzeratzeko aukera ere badago.

emaitzak

A Ze Flaxa Etxagi-Pagomendi	5-3
Etxagi-Arloteak/Oilagorra	13-1
Errotagain-Mongatxurak	1-2
Agiñaspi-Jauja OH Zerezos	3-2
Azpeitxi Jatetxea-Bar Canalejas	3-4
Bildurbarek Opel/Lam-Ortzi	7-3
Guadalest-Ufala	2-2
Manitou-Artusamak	4-1
Bayer-Agirrebeña Jatetxea	4-3
Amozkibar-Shaktale	3-3
FAC-La Juve	10-1
Ezinleike-SLO	4-3
Indargarri-Matxakategi	3-6
Komando Piperrak-Moskis	3-10
Bar Ganbara-Aldoka Maldoka	3-0
Autoberezi-Jakina Patxaran Team	3-0
MRW-Eri Sirimiri	1-3
Polideportivo Taberna-Etengabe	5-4
Patatus-Ganbara Ari Ari	0-3
Amilotx-Gazteak	4-1
Usoa-Txipiron	6-4
Igandekoak-La Peña DML	2-2

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	36	15
2. Mongatxurak	33	15
3. Errotagain	31	15
4. Pagomendi	25	15
5. Bar Canalejas	23	15
6. Etxagi	21	15
7. Bildurbarek Opel/Lam	21	15
8. Azpeitxi Jatetxea	20	15
9. Agiñaspi	13	15
10. Jauja OH Zerezos	11	15
11. Arloteak/Oilagorra	8	15
12. Ortzi	6	15

Bigarren maila

	P	J
1. Manitou	12	4
2. FAC	10	4
3. Bayer	9	4
4. Shaktale	7	4
5. Ufala	7	4
6. Ezinleike	5	4
7. Artusamak	4	4
8. Amozkibar	4	4
9. SLO	3	4
10. Agirrebeña Jatetxea	3	4
11. La Juve	3	4
12. Guadalest	2	4

Hirugarren maila

	P	J
1. Moskis	12	4
2. Bar Ganbara	9	4
3. Autoberezi	9	3
4. Eri Sirimiri	6	4
5. Matxakategi	6	3
6. Jakina Patxaran Team	3	4
7. Indargarri	3	4
8. Komando Piperrak	3	4
9. Uve Bikoitza	3	3
10. MRW	3	3
11. Aldoka Maldoka	0	4

Laugarren maila

	P	J
1. Txipiron	9	4
2. Usoa	9	3
3. Erdibiterrak	9	3
4. Ganbara Ari Ari	6	4
5. Polideportivo Taberna	6	4
6. Amilotx	6	4
7. La Peña DML	4	4
8. Igandekoak	4	3
9. Gazteak	3	4
10. Etengabe	3	3
11. Patatus	-3	4

ESKOLA KIROLA

IKUSI ETA IKASI

ESKUBALOIA

Aurkakoarekiko jokaera:

Aurkakoaren eraso gorputzarekin bakarrik galerazi daiteke besoak eta hankak zabaldu gabe.

Aurkakoarekin kontaktu egiteko beste aukera guztiak (hobatzeta, golpeak jotzea) debekatuta eta zigortuta daude. Aurkakoari edozein mesprezu edo irain egitea zigortu egingo da.

KIROLA EUSKARAZ FITXAK



TXINDARTAK

Aranzadiko saskibaloilariek sailkapen fasea jokatuko dute.

Aranzadiko infantil mailako saskibalo taldeak Gipuzkoa mailako txapelketa jokatzeko sailkapen fasea hasiko du asteburu honetan. Aranzadikoek Oñatiko Aozaratzeta eta Arrasateko San Viatorren aurka neurtu beharko dituzte indarrak. Hiruretatik onena bakarrik sailkatuko da Gipuzkoako txapelketa jokatzeko.

Alebinak atletismoan

Alebinek atletismo probak izango dituzte zapatuan goizeko 9:30etatik 12:00etara Agorrosinen. Neska eta mutilak 60 m, 2.000 m, altuera eta pisu jaurtiketa probak egin ahal izango dituzte.



Ipintza DBH 1

Ipintza DBH 1 infantil mailako futbol taldea Gorka Eguren, Gorka Alegria, Jabi Fernandez, Ion Gimenez, Ruben Valle, Iker Cruz, Ion Gimbert, Iker Unamuno, Manuel Sanchez, Victor Cañas, Andres Marquez, Antonio Rivera, Iñigo Albistegi, Ander Cabezas, Alberto Rubio, Alex Molano, Mikel Leturia eta Aitor Badek osatzen dute. Bikain ari dira Ipintzako mutilak jokatuak 7 partiduak irabazi egin baitituzte. Partidurik gogorrena Arrasateko La Merced ikastetxearen aurka jokatuakoa izan zela diote eta, gainera, oraindik Gorka Eguren atezainari ez diote golik sartu. Ate aurrean, berriz, aurrelaririk finena, 14 goleko markarekin, Aitor Bad da.



Aranzadi infantilak

Aranzadi infantil mailako futbol taldea Ion Elkoroberezibar, Unai Olabarria, Harri Albusua, Aitor Ugarte, Aitor Marauri, Ander Santamaria, Ion Sanchez, Igor Zangitu, Odei Andueza, Asier Arbulu, Iban Sevillano, Jabi Arizaleta, Gorka Igartua, Iker Barrenetxea, Xabi Garai, Mikel Loidi, Aritz Balda, Aimar Lasa eta Ugaitz Egurennek osatzen dute. Argazkian taldeko izarra den Iker Rollan falta da eta entrenatzailea Jon Unamuno txirindulari afizionatua da. Deba Garaiko taldeen aurkako 7 partidu jokatu dituzte eta lau irabazi bat berdindu eta beste biak galdu egin dituzte. Taldeko gauzarik onena daukaten giro ona dela diote.

SAILKAPENAK

ESKUBALOIA

Alebinak A multzoa

1. San Martin	8
2. Aranzadi 7	6
3. M Lagundia B	4
4. Aranzadi 8	2
5. Aranzadi 9	0

Alebinak B multzoa

1. Aranzadi 10	8
2. Antzuola 11	6
3. M Lagundia A	2
4. Antzuola	2
5. Aranzadi 12	2

Alebinak / Neskak

1. Aranzadi 13	8
2. Antzuola	7
3. Aranzadi 14	5
4. San Martin	0

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Infantilak / Neskak

Zapatua. Ipintzan futbolzelaia.
10:00: M. Lagundia-Aranzadi.
10:00: Ipintza DBH-Elgeta.

Infantilak / Mutilak

Zapatua. Ipintza futbolzelaia.
11:00: M. Lagundia-Antzuola.

SASKIBALOIA

Infantil / Neskak

Zapatua. M. Lagundia.
11:00: Aranzadi-Arrasateko inst..

ESKUBALOIA

Benjaminak

Zapatua. Aranzadi ikastolan
10:30: Elgeta-San Martin
11:15: M. Lagundia B-Aranzadi 2
11:15: Aranzadi 5-Aranzadi 4
10:30: Aranzadi 6-Aranzadi 1

ARETO FUTBOLA


Zapatua. M. Altuna institutua
12:00: M. Lagundia-Aranzadi 202
12:00: Aranzadi203-Aranzadi 201

Futbola

 Emakumezkoen taldeak partidu garrantzitsua jokatuko du domeka goizean Zarautzen kontra. Bittor Agirrebarrenaren neskek igoera fasea jokatu nahi badute, garaipena lortu beharra dute Zarautzen kontra. Bigarren mailako kadeteek ere partidu garrantzitsua dute Aretxabale-taren kontra. Aranbururen mutilek berdinketarekin nahikoa dute igoera fasea jokatzeko.

Talde nagusiak garaipen erreza lortu zuen Tolosaldearen kontra, era berean, joko ona eskainiz. Nietoren mutilek 4 eta 1 irabazi zuten eta lehen postuan jarraitzen dute 5 puntuko aldearekin. Asteburu honetan Aretxabale-tan jokatuko dute. Gai-nontzeko taldeek emaitza onak lortu zituzten.

Eskubaloia

 Lehen Maila terri-torialeko taldeak gol bakar bate-gatik galdu zuen berriz ere Urnietakoren aurka. Lehen zatia parekatua izan zen eta bigarrenean 25 minututan 3 gol bakarrik sartu zituzten. Azkenengo 5 minutuetan, aldiz, 5 gol sartu zituzten. Emaitza horrekin Lijoren mutilak maila galtzeko arriskuan daude eta entrenatzaileak adierazi digunez: "entrenamenduetan seriotasun gehiago behar dugu, bestela zail ikusten dut mailari eustea". Aste honetan Zarautzen aurka jokatuko dute etxean.

Jubenilek partidua irabazi egin zuten eta 4. postuan jarraitzen dute. Neskek ere irabazi egin zuten eta 3. postuan daude. Kadeteak bigarren faseko lehenengo postuan daude.

Saskibaloia

 BKE-Bolsos Bergara taldea igoera fasea jokatze-ko sailkatu da Bilbon Colegio Mikeldiri 3 punturengatik irabazi ondoren. Conderen mutilek partidu bikaina jokatu zuten eta zapatuan Goierriren kontra jokatuko dute. Urretxuarrek aurretik doaz sailkapenean eta biharko emaitzak hurrengo faserako bali-otzat hartuko dira. Horregatik, garrantzitsua izango da partidua irabaztea.

Jubenil mailako taldeak garaipena lortu zuen Donostian eta igoera fasea bikain hasi dute 3 partidu jokatuta, guztiak irabazi baitituzte. Jubenil mailako neskek, berriz, galdu egin zuten eta kadeteek 30 punturengatik galdu zuten. Santo Tomasetako biharamona igarri ei zuten.

MARIA ROMERA / Saskibaloilaria

"Saskibaloiak sakrifizioa eskatzen du"

Maria Romerak 26 urte ditu eta betidanik dabil saskibaloian jokatzen. Lehen pausuak BKE-n eman ondoren, Tolosa, Arrasate eta Eskoriatzara joan behar izan du saskibaloian jokatzeko. Gaur egun Eskoriatzan jokatzen du.

G. Zenbat urte daramatzazu Eskoriatzan?

E. Aurtegoa hirugarren urtea da eta oso gustora nago. Joan zen urtean mailaz igo ginen eta aurtun 2. maila terri-torialean gabiltza.

G. Zer postutan jokatzen duzu?

E. Behar den tokian. Norma-

lean hegalean jokatzen dut, baina azkenaldian base postuan ari naiz.

G. Zer postu gustatzen zaizu?

E. Hegaleko postua nahiago dut. Urte gehiago pasatu ditut postu horretan jokatzen eta hobeto moldatzen naiz.

G. Zergatik ez dago talderik Bergaran?

E. Ez dakit, baina gehienbat jende faltagatik izaten da. Safrikizio handia eskatzen du. Entrenamenduetara eta partiduetara joateko beste gauza batzuk laga behar

dira. Asteazken hiru aldiz entrenatzen gara eta gero zapatuan partidua jokatzen dugu. Gainera, ikasten edo lanean bazabiltza, gauza asko laga behar dira alde batera.

G. Zer nabarmenduko zenuke zure jokoari dagokionez?

E. Jaurtiketa.

G. Bergaran taldea ateratzeko aukerarik badago?

E. Zaila ikusten dut, lehen jokatzen zuen jendea berriz ere martxan jartzea oso zaila baita.

G. Gustukuen duzun saskibaloijokalaria?

E. Magic Jonshon.

G. Tau Baskoniak liga irabaziko du?

E. Ez, Real Madriderik. Gaizki jokatzen ari diren arren, Madrilailea izango da.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Aloña Mendi

Lehen mailako jubenilak. Zapatua. 15:30. Ipintza.

Bergara-Beasain

Lehen mailako kadeteak. Zapatua. 17:15. Ipintza.

Bergara-Zarautz

Emakumezkoak.

Domeka. 10:15. Ipintza.

Bergara-Baskonia

Bigarren mailako jubenilak. Domeka. 11:45. Ipintza.

ESKUBALOIA

Bergara-Urrietako

Kadete mutilak. Zapatua. 16:00.

Labegaraieta kiroldegia.

Bergara-Zarautz

Jubenil mutilak. Zapatua. 17:15.

Labegaraieta kiroldegia.

SASKIBALOIA

BKE Bolsos Bergara-Goierri

Zapatua. 19:00.

Senior mutilak.

Labegaraieta kiroldegia.

Bergara-Zarautz

Zapatua. 12:15.

Kadete mutilak.

Mariaren Lagundia.

Bergara-Euskalduna

Domeka. 11:30.

Jubenil mutilak.

Mariaren Lagundia.

PILOTA

Euskal Liga

Junior banaka, Gorka Martin-Elgeta.

Zapatua. 12:30

Gipuzkoako Liga

Kadete binaka, Aranburu-Leturia, Goierriren kontra.

Zapatua. 12:30.

Deba Arroko txapelketa

Bergara-Antzuola.

Martitzena, 19:00etan.

Kirol Sarien banaketa ekitaldia

Aitor Zabaletak urteko kirolari onenaren saria jaso zuen

Joan zen eguakitzean banatu ziren BERRIGARA eta Udal Kirol Zerbitzuak antolatzen duten Kirol Sariak. Aitor Zabaletak jaso zuen BERRIGARAKo irakurleek emandako saria, Andoni Larrañagak Bergarako kirolaren alde egindako lana eskertzeko sari berezia jaso zuen eta Lokatza elkarteak komunikabideek emandako joan zen urteko talde onenaren saria eskuratu zuen. Horretaz gain, klubek eurek

aukeratutako elkarte bakoitzeko kirolari onenaren sariak banatu ziren. Guztira 14 kirolarik jaso zuten Díaz de Zeriok eginiko eskultura. Sari banaketa ekitaldian kirolariez gain, Victoriano Gallastegi alkateak, Javier Zabaleta kirol zinegotziak eta Iñaki Ugarteburu kirol teknikariak parte hartu zuten. Argazkian saria jaso zuten kirolari guztiak ikus ditzaitezue. Halere, kirolari batzuek huts egin zuten. B



Argazkian ikus ditzaitezue eguakitzean saritutako kirolariak.

Xabier Azkarate bikain Reinosa-ko triatloi zurian

Xabier Azkaratek 3. postua lortu zuen Reinosa-ko Alto de Campoon jokaturako Estatuko neguko triatloi txapelketan. Antzuolarra bikain aritu zen eta 10 km korrika, 25 km bizikle-

tan eta 10 eskiatzen egin behar izan zituen. Hurrengo proba 15 egun barru Madril-en izango da eta gauzak ondo badoaz Jacan jokaturako den Munduko Txapelketara joango da. B

Nesken futbitoan sei talde arituko dira lehian

Lagunak elkarteak antolatzen duen nesken futbito txapelketa jokatzeko sei taldek eman dute izena. Txapelketa berehala hasiko da eta hiru itzulitara jokaturako da. Joan zen urtean be-

deratzi talde aritu ziren. Partiduak Miguel Altuna institutoko patioan jokaturako dira. Liga sistemarekin jokaturako da lehenengo fasea eta lau lehenengoek finalerdiak jokaturako dituzte. B



Etxaniz-Elkorok garaipen erreza lortu zuten

Jokin Etxaniz eta Aitor Elkorok garaipen erreza lortu zuten Titin eta Balerdiren aurkako partiduan. Bikote gipuzkoarrak partidu ona egin zuen eta Elkorok atzeko koadroetan dominatu zuen. Etxanizek, berriz, bere lana ondo bete zuen. Azpimarratzekoa da Bergarako pilotazaleek emandako erantzuna frontoia leporaino bete baitzen. B

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 76 53 09

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 76 55 74

Deco-Textil ZANGITU

Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta
ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
☎ 76 08 69

Usoa Pub



☎ 76 38 57
Irala 1

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Pisu amueblatua salgai herri erdian. Berriztuta. 76 06 64.

Pisua salgai A. Fleming kalean. 76 56 99.

Pisua salgai Donostian, Amaran. 45 85 09.

Pisua salgai Aranerrekian. 76 50 50.

Errentan hartzeko

Pisua alokairuan hartuko nuke. 76 11 12.

Pisua hartuko nuke alokairuan. 76 41 16.

Pisu txiki bat alokairuan hartuko nuke. 76 04 57.

Erosi

Pisua erosiko nuke Bergaran. 76 57 74.

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea salgai Bolun. 76 47 99.

Garajea salgai Maste-

rrekan. 78 36 65 (20:00-22:00).

Garajea salgai Masterrrekan. 76 24 57.

Garajea salgai Kruz Gailastegin. Deitu 76 27 61 telefonora.

Garajea salgai Martokon. Deitu 76 35 50 telefonora.

Garajea salgai San Lorentzon. 76 45 60/51 45.

Garajea salgai Ibargarain. Milioi bat. Deitu

762161 telefonora.

Garajea salgai Espoioian. Deitu 76 18 28 telefonora.

Garajea salgai San Antonion. Deitu 76 15 37 telefonora.

Errentan emateko

Garaje bikoitza alokairuan Torrekuan. 763032.

Garajea alokairuan Ibargarai 37an. 763376.

Garajea alokairuan

Ibargarain. 76 16 38.

Errentan hartzeko

Garajea/ganbara alokatuko genuke. 7650 00.

Garajea alokatuko nuke. 7605 17.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan. 150m². 76 1189.

Lokala salgai A. Flemingean. 76 00 84/35 83.

Lokal komertziala salgai Martokuan. 76 25 67.

Erosi

Zona industrialean 70 m² inguruko lokala erosiko nuke. 76 29 95.

Errentan emateko

Bi pisuko lokala alokairuan San Pedron. 150 m². 76 11 64.

Lau gelako bulegoa alokairuan Bolun (osorik edo gelaka). 76 58 91.

Uberan 144 m²ko lokala

Iragarki sailkatuak

Iragarki sailkatuen sailean oso erreza da zurea jartzea.

Deitu 76 03 97 telefonora edo zatoz Berrigarara. Partikularren iragarkiak doan jarriko ditugu. Inmobiliaria edo auto kontzesionarioenak, ostera, 1.100 PTA ordaindu behar da modulo bakoitza. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Eguazten eguerdia baino lehen jasotako iragarkiak argitaratuko ditugu.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. INMOBILIARIAK

5. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

7. AUTOAK/MOTOAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. AUTO KONTZESIONARIOAK

9. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak


10. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

11. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

ARROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA

**MAHER
Biltegiak L.E.**

Oihal etxea

Bidekurutzeta 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

MUJIKA UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka 23 ☎ 76 18 49

alokairuan. Biltegi edo lantegi txiki baterako egokia. 79 05 63.

San Lorentzoko industrialdean 200 m²ko lokala alokairuan. 76 35 09.

Dietetika-loradenda traspasatzen da Berri-zen. Lorazaintzan aditu-tako jendea nahiago. 94 682 42 28 (denda orduetan)

Errentan hartzeko

Prezio onean, lokala alokairuan hartuko nuke Osintxun. 76 08 21.

5. LANA

Eskaintzak

Andre batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketak egingo lituzke. 76 00 90.

Neska batek astebukeretan helduak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Deitu: 76 56 66.

Klinika auxiliari batek gaisoak edo helduak zaintzen ditu. 76 64 47.

Neska tituludunak administratibo lanak egingo lituzke. 907 94 06 67.

Neska batek orduka lan egingo luke. 939 47 25 84.

Eskaerak

Abestu eta pianoa edo teklatuak jotzen dituen neska behar da. 73 05 65 (gauez).

Taberna batean lan egiteko pertsona bat behar da. 76 51 20 (12:00etatik 13:00etara).

Eguzkitza erretgirako emakume/gizonezko bat behar da sukaldari lanetarako. 76 56 03 (11:00-16:00 edo 19:00etatik 22:00etara).

Tabernari euskalduna behar da Kortazar tabernan. 76 20 62.

Haur bat zaintzeko emakume euskalduna behar da. 76 35 11.

6. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 17 18 (Jesus).

OHO klaseak Antzuolan. 78 71 32.

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 53 88 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditut LOGSE 2. mailara arte. 76 24 31.

Mate klaseak ematen ditut. 76 03 72 (Nerea).

Lizentziatu batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. Deitu 76 70 40 telefonora.

Mate, fisika eta informatika klaseak. Deitu 76 46 03 telefonora. OHO eta BBB klaseak ematen dira. Deitu 76 33 26 telefonora.

Pintura eta marrazki klaseak ematen dira. 76 03 83.

Eskaerak

Ingeles klaseak jasoko nituzke bertakoa den batengandik. 76 38 71 (Larraitz).

Frantses irakaslea behar da. 76 06 87.

7. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Aprilia rally motorra (49 c.c.) salgai. 76 62 24.

Kawasaki Vulkan motorra salgai. 76 70 21.

Renault-19 Chamade TXE kotxea salgai. SS-AF, egoera onean. 76 11 20/76 30 12.

Audi 90 kotxea salgai. 1988koa, egoera onean. 76 35 09.

Ford Fiesta XR2 lehenengo modelokoa salgai. BI-AB. 175.000 pezeta. 79 37 68.

Suzuki Hard Top 4x4 autoa salgai. Gris metalizatua. 5 martxaduna eta estriboetako babesgarriekin. 79 09 92 (13:00-16:00).

9. ANIMALIAK

Saldu/Eman

Pastor aleman txakurkumeak saltzeko ditut. Interesik izanez gero, deitu 76 08 21 telefonora (Unai).

Pastor aleman txakurkumeak (arrak) oparitzen ditut. Telefonoak: 78 19 43/78 22 41.

Kruzeak egiteko pit-bull arrazako txakurra eskaintzen ditut. Telefonoa: 929 81 81 22 69.

Setter ingeles arrazako lau txakurkume salgai. Abenduaren 19an jaioak. 76 51 38 (Joseba).

10. DENETARIK

Saldu

Logela berria salgai: bi ohe, ikasketa mahaia, liburu apalak, altzari txikiak. 76 43 37.

Mendi trabesiako Nordica TR9 botak salgai, 42-43 zenbakia. 75 16 80 (Jon).

Denda baterako moduko apala, mostradorea, euskarria eta makina-errejistradora prezio onean salgai. 76 25 67.

Gasteizera egunero joan-etorria egiteko, kotxea konpartitzeko jendea behar da. 76 22 97 (Antonia).

Zumarraga-Gasteiz joan-etorria egiteko kotxea behar da. 3 ikasle. 72 24 57 (Julene).

Gazteentzako altzariak saltzen ditut. 20.000 pezeta. 76 30 93.

Pioneer musika-ekipoa salgai. 907 40 28 27.

Vitus bizikleta egoera onean salgai. 76 08 21 (20:00-22:00).

Altzariak prezio onean salgai. Aukera ederra. Deitu: 76 30 93.

Egur koloreko sehaska berria prezio onean salgai. 79 56 53 (Isabel).

Karabanendako neguko abantzea salgai. Inca Alpes 250 modeloa. Bi urte. 79 66 09.

Faxdun telefonoa salgai. Berria eta prezio onean. 79 65 31. Tere.

Erosi

Ibertreneko materiala erosiko nuke. 76 03 72.

Bigarren eskuko faxa erosiko genuke. Deitu 76 58 37 telefonora.

Diska-singleak erosten ditut. Deitu 52 67 77 telefonora.

Punk eta hard-core musika erosten dut (LP eta singleak). Deitu 76 38 25 telefonora.

Galdu

Duela 15 egun foxterrier antzeko txakurkumea galdu dugu. 4-5 hilabetekoa, marroiskabeltza, Fox izenekoa. Lepoko berdea. Deitu 58 50 20 telefonora.

Zubietatik kalera bidean urrezko belarritakoa galdu dut. 76 47 82.

MARGA JANTZIDENDA
ERREFORMAK DIRELA ETA,
OTSAILEAN LIKIDAZIO OSOA!!!

Aukera ezin hobea!
Zatoz dena agortu aurretik!

MARGA JANTZIDENDA, SAN PEDRO 20 TF/E. 76 05 37

LOS CAZADORES
TABERNA Zubieta 26
☎ 76 48 08

Goizeko 7etatik zabalik

gosariak plater konbinatuak pintxoak pizzak

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 76 13 35

Bolintxo
OKINDEGIA

domeketan zabalik
eta zapatu
arratsaldeetan 17:00etatik
20:30etara

Zurradero 2 behea Telefonoa 76 01 26

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78



Jubilatuen elkarteko abesbatza sasoi onean

Bigarren sailkatu zen VII. Euskal Herriko Zahartzaroaren Abesbatz Erakusketan

San Joxepe Jubilatuen Elkarteko abesbatzak Gasteizko VII. Euskal Herriko Zahartzaroaren Abesbatza Erakusketan hartu zuen parte joan zen astean. Gasteizko Udalak antolatutako lehiaketan bigarren postua eskuratu zuten bergarrek.

Gasteizko Printzipal Antzokian izan zen lehiaketa eta Euskal Herri osotik etorritako zortzi abesbatzak hartu zuten parte; finalera, osterara, lau bakarrik heldu ziren: Gasteizko bi, Bilboko bat eta San Joxepe elkartekoa. "Festara", "La barca de oro", "Ixil-ixilik dago", "Kuku", "Goizeko izarra" eta "Boga-boga" abestiak eskaini zituzten lau abesbatzok. Bergarakoak txalo ugari jaso zituen antzokia bete zuten ikusleen alde-tik.

San Joxepe jubilatuen abesbatza 46 lagunek osatzen dute eta Nicomedes Larrañagak egiten ditu zuzendari lanak. Gasteizen ikusteko aukera izan zute-



Nicomedes Larrañagak zuzentzen duen abesbatza 45 kidek osatzen dute.

nek, abesbatzak azkenaldian nabarmen hobera egin duela aitortu dute. Astero entsaiatzen dute jubilatuen egoitzan eta bertako kideek adierazi dutenez, par-taide berriak hartzeko prest daude.

Jubilatuen abesbatzak herriko auzo-tako jaietan kantatzen du normalean -

egustenean, Santa Ageda bezperan, kalez kale ibili ziren kantuan-; era be-rean, Donostian izango den jubilatuen abesbatzen jaialdian parte hartuko dute laister. Jaialdia Diputazioak antolatu du eta lurralde historikoko beste koral ba-ztuek ere hartuko dute parte. B

Manu Muniategiandikoetxearen pintura erakusketa Madrilen

Manu Muniategiandikoetxearen pintore bergararrak martitzenean zabaldu zuen Madrilen bere azken lanak biltzen dituen erakusketa. Reina Sofia zentruaren atze-aldean, Salitre kalean, dagoen My Name's Lolita Art erakusketa aretoan, 18 marrazki, 4 koadro haundi eta erdi mailako beste zazpi koadro


izango dira ikusgai martxo bukaerara arte. "Berbetan" izeneko bilduma honetan, lan figuratibo eta abstrakto-ak aurki daitezke, kolore bi-ziz pintatuak. Erakusketara-ko katalogoa ere kaleratu du. Datorren astean Arco fe-ria zabaltzen dela kontutan hartuta, bergararraren lanak ikusteko aukera ederra. B

Egan taldearekin karaokea San Martin plazan aurtengo Aratuzteetan

Egan taldearen eskutik karnabal martitzenean anto-latuko den karaokea izango da aurtengo Aratuzte jaieta-ko ekitaldirik aipagarriena. 18:30etatik aurrera izango da eta, ondoren, sardinaren entierroa egingo da. Aurten aurreratu egin nahi izan da jende gehiagok parte hartu dezan. Kalejira egingo da

Kultur Etxetik irtenda eta, ondoren, entierroa plazan. Gauerako Egan taldearekin dantzaldia iragarri da. Ho-rrez gain, Sebastopoleko ti-tiriteroak, Maskaradarekin dantzaldia edota Orkestra Sinfonikoak eta Musika Bandak Mikel Vicenteren alde eskainiko duten kontzer-tua ere aipatu daitezke. B

Tapizeriak
Moketak
Alfonbrak



Kruz Gallastegi 3, BERGARA ☎ 76 07 37

Eta orain
gazteendako,
umeendako eta ume
jaioberriendako
altzariak



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

■ kronika

Rock ufala berria Pol-Polen

Herriko hiru talderen emanaldi basatia

Joan den eguakitzean San Juan Bosko eguna ospatzeko rock kontzertua egon zen Pol-Pol tabernan. Bertan, Bergarako Assholes, Fly shit, Elevators eta Arrasateko Inertzia taldeak ikus-entzuteko aukera izan genuen.

Jon Belastegi

Kartelera Assholes taldeko mutilek zabaldu zuten, euren lehenengo bolan. Assholes taldeak bi hilabete daromatza punk-rock egiten. Euren influentziak nabaritu ziren kontzertuan: Stookees, La Perrera eta Misfits bezalako taldeen bertsioak eginez.

Hasieratik, talde eta publikoaren artean hartueman estua egon zen eta honek herriko taldeekin ohikoa den pasibitatea apurtu egin zuen.



Assholes taldearen punk-rockarekin hasi zen kontzertua.

The Elevators taldeak ere, estreina-koz jo zuen eguakitzean. Bergarako talde honek aurrekoen musika ildo berari jarraitu zion ikutu psikodeliko bat gehituz, besteak beste Ama say, Buzzcocks eta The stooges taldeen bertsioak eginez.

Ondoren, Inertzia talde arrasatearraren txanda heldu zen. Trash-core doinuak izan zituzten nagusi, Anestesia eta Etsaiak taldeen bertsioekin. Arrasateko jende dexente hurbildu zen hauek ikustera.

Kontzertuari Bergarako Fly shit taldeak eman zion amaiera. Ia urtea betetzen zen Pol-Polen debutatu zutenetik. Nabaria izan zen eboluzioa. Dagoeneko hamarren bat kontzertu eskainiak dituzte Euskal Herriko eta atzerriko talde ezagunekin: Anestesia, Señor No, Dick cheese eta MCN talde alemaniarrekin besteak beste. Eskertzekoa da taldekoen jarrera eguakitzeko kontzertuan, egundoko giro eta desmadrea sortzeko egin zuten ahalegina handia izan baitzen.

Eguakitzean Pol-Polen ikusi genuen bezala, badira talde berri asko Bergaran, musika egiteko gogoia dutenak. Oztopoak, baina, gauzarik oinarrikoenetan aurkitzen dituzte, entsaiorako lokaletan esate baterako. Udalak ere badu zeresanik gai honen gainean, gazte hauek burokraziaren hatzaparretan ito beharrean, soluzio azkar eta egokiak emanez, alegia. B

Eguakitzean Pol-Polen ikusi genuen bezala, badira talde berri asko Bergaran, musika egiteko gogoia dutenak. Oztopoak, baina, gauzarik oinarrikoenetan aurkitzen dituzte, entsaiorako lokaletan esate baterako. Udalak ere badu zeresanik gai honen gainean, gazte hauek burokraziaren hatzaparretan ito beharrean, soluzio azkar eta egokiak emanez, alegia. B

■ salduenak / urtarrila

LIBURUAK

Euskaraz

1. ZOZOAK BELEARI
Andoni Egaña-Jon Sarasua. Alberdania.
2. DEMOKRATAK ETA BIOLENTOAK
Joxe Azurmendi. Elkar.
3. BERRIRO IGO NAUZU
Xabier Mendiguren. Elkar
4. HITZEN ONDOEZA
Joseba Sarrionandia. Txalaparta.
5. KALAMIDADEEN LIBURUA
Joan Mari Irigoien. Elkar.

Erdaraz

1. LIMPIEZA DE SANGRE
Arturo Perez Reverie. Alfaguara.
 2. AFRODITA
Isabel Allende. Plaza & Janes.
 3. EL DIABLO DE LOS NÚMEROS
H. M. Enzersberger. Siruela.
 4. YO ENTRÉ EN EL CESID
Pilar Urbano. Plaza & Janes.
 5. MI CORAZÓN QUE BAILA CON ESPIGAS
Carmen Rigalt. Planeta.
- Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba, Zangitu

DISKOAK

1. BACKSTREET'S BACK
Backstreet boys.
 2. AQUARIUM
Aqua.
 3. BADA HIRI GORRI BAT
Lorelei.
 4. MARIJANE KANTA ZAN
Oskorri.
 5. DEVIL CAME TO ME
Dover.
 6. MÁS
Alejandro Sanz
 7. ROMANZA
Andrea Bocelli.
- Iturria: Etxepare-Bilintx, Zaiazko



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 76 71 19



Tf. 76 35 81

ADI BERGARA!

JAM kafetegian sekulako pintxoak, ogitartekoak...

Eta zapatu gauean, ordu txikietan,
oilasko mundialak!
Astebarruan ere hartzen ditugu enkarguak

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Proiektuak. 2. Ahari zikiratu. Burdinola. 3. Baztango herria. Bi kontsonante. 4. Zein lekutara. Hostoa. 5. Jatorri atzikia. Eako biztanle. Musika nota. 6. Lehenengoa. 1996an. Guraso arra. 7. Osagile. 8. Behi-zaindari. Momentuak. 9. Neoiia. Zango atala. Suari dario. 10. Euskal Herrian jardun zuen talde parafaxista. Barazki mota. Nitrogenoa.


Goitik behera

1. Ezin daitekeenaren nolakotasuna. 2. Eguratsa. Nirea. 3. Euskal bandera. Bokala. 4. Interjekzioa. Diosala hitza. 5. Jardun. Gabezia. Berrogeita bederatzia. 6. Ezkaratza. Eremitxi. 7. Mila. Uretako bizidunak. 8. Bokal errepikatua. Röntgen. Bilo. Bokala. 9. Berriak, notiziak. 10. Bizkaieraz, katea. Kenketaren ikurraren izen.

Soluzioa

9. Albiasteak. 10. Kataia. Ken.
7. M. Arriñak. 8. Oa. R. Ite. A.
5. Ari. Eza. Il. 6. Sotoa. Gune.
3. Ikurrina. A. 4. Trai. Adio.
1. Ezintasuna. 2. Giroa. Enea.
Goitik behera
Leka. N.
9. Ne. Oina. Ke. 10. AAA.
7. Sendagile. 8. Uhal. Uneak.
5. Tar. Ear. Si. 6. A. Iaz. Aita.
3. Iurita. Bt. 4. Nora. Oria.
1. Egiztasmoak. 2. Zikiro. Oia.
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Bergarako erdialdeko zein kaletan aurki dezakegu ezkerreko ataria eta zein eraikuntzatan eskumako atea?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Panaderokua** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Gemma Idigoras**entzat izan da: Infernukua tabernan bi lagunendako afaria. Zorionak Gemmari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Ariznoa plaza**. Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-C**.

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____

Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela eguazten eguerdirako Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

SALBADOR 10 ELGETA TLF. 76 82 73

Datorren astean 50 urte beteko ditu Agirre jantzidendak. Luis Agirre izan zen sortzailea eta, oraindik ere, 74 urterekin, zuzendari lanak betetzen ditu bertan. Tradizioari jarraituz, bere seme-alabek ere dendari ofizioari eutsi diote.

Zein izan zen lehen eskaera orain 50 urte?

Musika Bandarentzako trajea; 650 pezeta balio zuen traje bakoitzak txapel eta guzti.

Eta orain zenbat balioko lukete?

20 mila inguru.

Dendari bat ez da sekula jubilatzen?

Legez bai, baina ispirituz, sekula.

Zer behar da dendari ona izateko?

Salmentarako grina izatea.

Urrezko legea zein litzateke?

Zerbitzua eta prezioak hobetzea.

Agirrek beste 50 urte egingo ditu?

Jarraitzeko indarra badaukagu...

50 urte hauetan, garairik onena zein?

1960ko hamarkada, beharbada.

Urteko zein sasoitan saltzen da gehien?

Negu partean.

Zein adinetako jendea janzten da ondoen?

50 urtetik gorakoak gehiago arduratzen dira ondo janzten.

Eta gazteak, zer?

Ez diote estiloz janzteari horrenbesteko garrantzia ematen.

Berreskuratuko da hori?

Beharbada, baina ez dut uste nik ikusiko dudarik.

Gaur egun non egiten da moda erakargarriena?

Italian, beharbada.

Gaur eguneko jantzirik

Luis Agirre

arrakastatsuen zein da?

Bakeroak eta sport jantziak orokorrean.

Bakerorik jantzi duzu sekula?

Ez.

Jantzirik gustokoena?

Alkondara eta korbata.

Zenbat korbata dituzu?

Asko.

Txapelik janzten duzu?

Bai, asko gustatzen zait.

Zer ez zenuke sekula jantziko?

Pajarita.

Jantzi marka bat?

Lacoste.

Kolore bat?

Urdina.

Urtaro bat?

Udaberria.

Janari bat?

Baba gorriak.

Sukaldari ona zara?

Txarra oso.

Telebistako saio bat?

Informatiboak.


Kirol bat?

Pilota eta bizikleta.

Nork irabaziko du euskal derbya?

Ez naiz futbolzalea, baina nahiago nuke

Realak irabaztea. B



AGIRRE JANTZIDENDA

1948 - 1998



urte bete ditugulako,
%50eko beherapena.

Bidekurutzeta 18, Bergara. Telefonoa 76 12 64.



Martokoko haur eskola 1975-76

Joan zen astean Epaitegiko Herriko eskolan 1964-65 ikasturtean zebiltzan mutikoen argazkia erakutsi genizuen Erretratu Zaharrean. Oraingoan, antzerako argazki batekin gatozkizue.

Martokoko haur eskolan 1975-76 ikasturtean zebiltzan neska-mutikoak agertzen dira argazkian, gaur egun 27-28 urte dituztenak. Hauek dira, ezkerretik hasita, argazkian ageri direnak:

Goiko ilaran: Elena, Virginia Nieto, Miguel Domenech, Iban Izarbe, David Arevalo, Iñaki Aramendi, Paco Jimenez, Mari Carmen Otero, Rafael Moral, Javi Moreno "Txabi" eta Iñaki Arenaza.

Erdiko ilaran: Isabel (irakaslea), Rosa Agirreña, Miguel Diaz, Mari Carmen Aperribai, ezezaguna, Jon Lazkano, Jose Ramon, Javier Rodrigo "Piti", Javier Gainza, Arturo Cachafeiro, ezezaguna, Mari Reyes Tena, Lurdes Fernandez, Cristina Toledano eta Gorka Mujika.

Beheko ilaran: Mari Angeles Cid, Mari Cruz Gantxegi, Olga Castro, Raul Dacosta "Piru", Iban Molina, Maria Jesus Quintas, Marco Arevalo, Miguel Gimbert, Manoli Jimenez, Natalia Murillo, Susana Etxaniz eta Javi Cambronell.

Argazkia: Jon Lazkano.

OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!



☎ 76 20 61



Zumelaga

JATETXEA


ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 76 20 21

Industria  Industriaren
hornikuntzak UNIFE alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea 9 ARRASATE
Tf. 79 42 22 • F. 79 47 89
Santa Cruz 25 ARETXABAETA
Tf. 77 11 75 • F. 77 13 08



GUCCI
ENVY

GUCCI
parfums

Detalle polita
egiteko perfume
moderno.

Erregalu polita
egiteko tratamendu
ederra.



alga

lbargarai 10 Tf.: 76 00 85



ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

**LOGELETAN
maisua**

**Zapatu
arratsaldeetan
zabalik!!**



**Eta orain
2. SOLAIRUA**

**Saloi eta sofa
erakusketa**

Etxe Mobil, Deba Garai eta Behean zehar logela, sofa, saloi eta osagarriak errezago topatzeko merkatal zentrua. 48 urteko esperientzia. Bertako profesionalak zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tf. / Faxe: 79 41 82

ARRASATE